



ARGIA

Srebrenicako
bosniar bat bere
senidearen hilkutxa
identifikatu nahian,
hura hil eta 20
urtera. 2015eko
argazkia.

SREBRENICA, 30 URTE

Genozidioaren zauri irekia

24-31. orrialdeak



**Gosetea,
palestinarrak
desplazatzeko
enegarren bidea**

12 | PALESTINA



**"Ez da neska edo
mutil kontua
irrintzia botatzen
jakitea"**

14 | RAKEL ETXEBARRIA



**"Nagia eragiten
dit konpositoreon
artean dagoen
elitismoak"**

44 | JON ESNAOLA



9€



gakoak

Uda patxadaz gozatzeko

ARGIA Jendeak etxean jasoko du, eskatu beharrik gabe.

Gainerakoek: erosi ARGIAren Azokan

azoka.argia.eus • (+34) 943 37 15 45

 ARGIA

Egin zaitez
ARGIAkoa
uztailaren 23a
baino lehen
eta etxera
bidaliko dizugu

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 09 | MELOI SALTZAILEA
- 09 | EZ HANKA EZ BURU


AZALEKO ARGAZKIA: **ALFONS RODRÍGUEZ**

Iritziak

- 19 | BALEREN BAKAIKOA
- 20 | BEA SALABERRI
- 21 | HIRUKI LARROXA
- 21 | ITXARO BORDA
- 22 | JON ALONSO

Finkoak

- 36 | GORPUTZ HOTSAK
- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**

PELLO MAUDO / ARGIA CC BY SA



32 | **MOCCHI ABESLARI URUGUAITARRA**

Eskuinaren gorakadaz eta musikaren bidez elikatu nahi dituen espazioez mintzo da musikari gaztea. Isiltzeari buruz eta izendatua ez denari buruz hausnartu du Garazi Basterretxeak egin dion elkarrizketan. Haurtzarotik bere belaunaldiak bizi izan dituzten krisialdiak eta lorpenak errepasatu ditu eta Pepe Mujicak bera bezalakoak politikara ekartzeko izan zuen gaitasuna baloratu du.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Gaza Humanitarian Foundation: palestinarrek desplazatzeko enegarren bidea

Jenofa Berhokoirigoin

14 | PERTSONAIA | RAKEL ETXEBARRIA

"Nik neure irrintzia egiten dut, aita-amei ikasitako zantzoa"

Miel A. Elustondo

24 | NAZIOARTEA | GENOZIDIOAK 30 URTE

Srebrenica: ez aitorpenik, ez barkamen eskerik

Maria Ortega

44 | KULTURA | JON ESNAOLA

"Egunero jarri behar den artisaua da konpositorea"

Gorka Peñagarikano

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

**Gobierno
de Navarra**

**Nafarroako
Gobernua**

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

Axier Lopez, Eneko Imaz, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Fernández,
Jon Torner, Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Maria Ortega, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzarde parekidea: 72562 E

GUIKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza
aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Lizentzia hau baliagarria da testuentzat
eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan,
ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


Aizarna ekologikoa:


Aldizkari honek ekoedizioaren
baldintzak betetzen ditu.

bDAP202500064


OLATUKOOP

Ekonomia sozial eraldatzailearen
sareko kide gara.



Plastikoari oratuak

220 milioi tona plastiko sortzen ditugu munduan eta %10a soilik birziklatu. Zifra hori, gainera, hamar urtez jarraian ez da aldatu. Iaz zabor plastiko horren herenak gaizki kudeatzeagatik gure inguruko bazter, erreka, itsaso eta atmosferan bukatu zuen. Greenpeacek salatu duenez, munduan gutako bakoitzak, batez beste, urtean erabilera bakarreko 144 plastikozko poltsa erabiltzen ditu. Oraindik ere mota guztietako saltoki orotan aurki dezakegun poltsa horrek 12 bat minutuko bizitza erabilgarria du, baina, aldiz, bost hamarkada baino gehiago behar ditu degradatzeko. Ekintza politikorik ezak, plastikoaren industriaren mugarik gabeko jardunak eta ezaxola indibidualak cocktail lehergarria osatzen dute. Bere burua pozoitzen duen animalia bakarra gara.

Eta libre izan nahi zuen

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Badira ibilbide literario oso bat justifikatzen duten poemak. Joxe Azurmendiren *Manifestu atzeratua* da horietako bat. 1960ko hamarkadako euskal kultura berriaren funtsezko testuetako bat izateaz gain, hil berri den pentsalariaren gaztetako lan horri erreparatuta, gero jorratuko zituen ildo askoren aztarnak antzema-ten dira.

1968. urtea zen: barrikadak Parisko maiatzean, sobietarrek abuztuko galdatan ito zuten Pragako udaberria, Erromako Valle Giuliaiko istiluak, Zengakuren japoniarren suge-dantzak Polizia herrestan eramanez, Mexikoko Tlatelolco plazako sarraskia, ukabil beltzak itsututa AEBetako arrazakeriaren kontra. Eta hemen? Hemen Txabi Etxebarrieta hilketa, hilabeteak iraun zuen salbuespen-egoera, erregistroak, atxilotak, torturak, erbestea.

Alemania: Joxe Azurmendi izeneko 27 urteko zegamar bat goizeko ordu bietan ari da poema bukatzen: “Baina libre izatea / gauza ikaragarri zaila da...”. *Manifestu atzeratua* du izenburua. Hurrengo goizean bidaliko dio Suitzari ikasten ari den adiskide donostiar bati, Ramon Saizarbitoria delako bat. Gazte eroak, frankismoan mundu berri bila. Gutxi ziren; askatasun gosea zuten handia.

Poema hura, Azurmendiren lehen liburutik zentsurak kenduko duena, mami-zen hasia den Euskal Herri berriaren testu fundazionala bat bilakatuko da. Poema hark den-dena ez, noski, baina asko esplikatzen du hil berri den idazle eta filosofoaren ondorengo ibilbideaz ere. “Hauze baita gure engainu azkenekoa: / libre izan nahia justifikatu behar dugula / pentsarazi digute / lehen kanpotik eta barrutik orain”.

“Lehen kanpotik”: 1940ko hamarkadan jaio. Oso-osorik irentsi behar eskolan, elizan eta kalean filosofia nazional-katoliko espainiarraren pake- te ideologikoa. “Eta barrutik orain”: 1960ko hamarkadako gazte, ikusten du inguruko jendea nola ari den munduko filosofia iraultzaile guztiak gurean modu aski eskematikoan aplikatu nahian.



ALBERTO ELOSEGI

Eta beste bide batetik joatea erabakiko du. Ausartuko da zalantza egitera. Eran- tzun erabatekoak edukitzeko baino, gal- dera hobeak egin ahal izateko pentsatze- ra. Sistema itxietan batere federik ez duen filosofia izan da Azurmendirena, ñabarduraren ñabarduraraino iritsi zalea, aurkia, ifrentzua eta kantoia aztertzer eman.

Baina ez horregatik hoztasun hiper- analitikoetan galtzen dena: “Libre izan nahi dugu. / Guk, haragi honek, esperan- tza honek / nahi du libre”. Gorputzaren konkrezioa. Goi-arnaseko pentsamen- dua eguneroko eztabaiden sutan proba- tzeko joera. Gisa horretan desmuntatu- ko zuen piezaka 1990eko hamarkadan fabrikatutako dikotomia politiko bat (*Demokratak eta biolentoak*), seinalatu- ko zuen dogmatismo artxikatolikoaren konbertsioa dogmatismo artxidemokra- tikoan (*Oraingo gazte eroak*) edo euskal gatazkako erlatibismo moralaren para- doxetan murgilduko zen (*Euskal Herria krisian*), unean uneko debateentzat na- bigazio-mapa zabalagoak eskainiz.

Aktualitate handiko gaiak, ordea – denboraren poderioz konturatzen da

bat–, ziklikoki errepikatzen diren kon- tuak izan ohi dira. Ez direla hain ak- tualak, alegia. *Teknikaren meditazioa* (1998) esku artean hartzen duzu, adi- bidez, irakurtzen duzu aurrerapen zien- tifikiko-teknologikoek probokatzen di- tuzten kezkei buruz dioena, eta adimen artifizialarekin txoratuta dabilen mundu honentzat idatzia dirudi. Horrela jarrai- tuko dute gauzek –*Manifestu atzeratua* berriz ere– “... gure filosofoek ikasten ez badute / ez duela eguna erlojuak egiten”.

Azken minutuko gaiekin gabiltzala, bestalde, garrantzi gutxiko gauza irudi- tzen zaigu literatura bezalako jardue- ra bat. Joera dago pentsatzeko beste- rik pasatzen ez den momentuetarako denbora-pasa hutsala dela. Ez zen hala izan inoiz Azurmendirentzat, filosofoak eta literatoak osatzen zuten pentsalaria. Bizi zela argitaratu zuen azken liburuan (*Europa bezain zaharra*, 2023) ikus dai- teke: idazkera solte batekin, Dante, Pe- trarca, Makiavelo, Du Bellay, Camoes, Shakespeare eta abarren irakurketa xeheak eginez, Europako estatu- etako estereotipo nazionalisten genesiaren lekuko bihurtzen du irakurlea.

Nazioaren iruditeria ez da letreta- ra mugatzen, noski; eta gainera “gure jendea ez da poesia batean kabitzen”. Baina gure poesiak esaten digu zerbait gure jendeaz. Ez dugu irakurtzen, hori da kontua. “Gure klasiko zaletasuna lo-

Gazte eroak, frankismoan mundu berri bila. Gutxi ziren; askatasun gosea zuten handia

tsagarriro axalean gelditzen ari da: ez diogu formari baizik begiratzen eta ez diogu begiratzen formari ere”, zioen *Zer dugu Orixeren alde-n*. Gaur goizean idatzitako esaldia dirudi ze, esandakoa, aktualitateak ez du aktuala izatea lor-tzen eta gure kultura ezagutzea lau klixe errepikatzearekin nahasten dugu oraindik ere. Orixeri buruzko liburu hori –eta haren bikia: *Zer dugu Orixeren kontra-*, edo *Schopenhauer, Nietzsche, Spengler, Miranderen pentsamenduan* utzikeria orokor horren kontra idatzitako lanak dira, besteak beste.

“Xentimoka pentsatzen duen herria” ginela zioen Zegamako gazte hark 1968an. Txanpon handiagoak dauzka orain herriak gogoetatzeko. Azurmen-diren lan batzuk, berak hitzaurreetan, aurkezpenetan eta elkarrizketetan sarri ekarpen xumetzat jotzen zituen arren, benetan monumentalak dira: beroaldi batean idazten hasi eta jada klasiko bihurtu den *Espainolak eta euskaldunak* nabarmenduko dute askok egun hauetan. Eta arrazoi asko aurkitu-ko ditu liburua irakurtzen duenak hori hala izan dadin.

Ez dute arreta gutxiago merezi ordea *Espainiaren arimaz, Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua* eta *Volksgeist - herri gogoa. Ilustraziotik nazismora* liburuek osatzen duten trilogiak; edo Ernest Renani buruz eta nazioaren kontzeptu “alemaniar erromantikoa vs. frantziar ilustratua” topikoaren inguruan osatutako *Historia, arraza, nazioa* saiakerak ere, batzuk aipatzearen. Erudizio ikaragarri osatutako lanak dira eta azken urteetan apaldu samar dagoen euskal nazio-gintzari bultzada berria ematekotan, ezinbesteko abiapuntuak izango dira.

“Zergatik ez aitortu: / miserable banaturik gabilta / mendian otsoak bezala. / Gu, txindurriok zeruaren azpian / argonauta ustean”. 1968 hartan bezalatsu, astinaldi planetarioen erdian berriz ere “hogeita lau sektatan ezpaldu” beharrean ari garen gizaberetxoen komunitate honek erantzunak hobeki pentsatzeko beharra dauka. Agian bere buruari egiten dizkion galderak aldatzekoa ere bai. Lan horietan sartzeko gogoa daukanak Azurmendirekin topo egingo du goizago ala beranduago. Eta gogora ekarriko dio libre izatea eta handi izatea ez direla gauza bera; eta “gure jauntxoak ez direla / sekula gure herria izan ta izango”; eta gure jendea askotan engainatu dutelako dela fidagaitza; eta libertatea ez dela eder; baina etorkizunean dagoela. ●

Hau altxorra, geure geurea!

ALAITZ AIZPURU JOARISTI

Kax, kax, kax.
– Aurrera!
Maratila kirrikariari buelta eman eta barrura.

Hor zaude zure Donostiako Ibaetako EHUKo bulegoan, eserita, lanean, aurrean mahaia bete irakurgai. Hor daude zure poltsatxo beltza lurrean, zure erlojua, ohiko legez, eskumuturrean behe-rantz buelta emanda, eta zure begirada eta irribarre goxoa. Leihotik Tolosa hiri-bideko ezkiak, trafikoa eta jendea. Pittin bat haratago Jakinen eta Jakin Talde-koon garai hartako etxea.

Lehen agur hitzak esan eta, hitz egi-ten jarraitu ahala, Itoizko Solidarioen aldeko solidarioek jasotzen duten, zuk jaso berri duzun, gutuna ireki duzu. Hori aipatzen hasi eta...

– Tirrin-tirrin.

Hara, telefonoa!

Maite da. Gabriele Maite. Zure laguna, andra-laguna. Zure hainbat liburutako eskaintzatan ageri den izena. Alemanez hitz egin duzue, gero deituko omen diozu.

Ez naiz akordatzan zertaz jardun gi-nen jarraian.

Baina ondoren bai, hori gogoan dut.

Zure lanei buruz hasi ginen hitz egi-ten. Justu unibertsitate barruko norbe-re lanen aurkezte eta puntuazio garaia nonbait, orduko sistema estatal uniber-tsitarioraren parametroetan, eta hala, vascoan ere, EHU/UPV-n eta enparaue-tan, zure lanek orrialde gutxi batzuetako ingelesezko edozein artikulua baino pun-tu gutxiago ematen zutela eta...

Horixe da zure lanari egiten zitzaion eta egiten zaion aitortza akademia arro-tzaren barrunbeetan, itxurakeriak itxura-keri. Horixe da herri honetako pentsalari gorenetakoa baten lanei opa zaien lekua, eta zure bide bera hartu nahi dutenei, egon badaudelako, gehiengoa izan ez arren. Joxe Azurmendi Katedra eta antze-ko ahalegin, irakasle, ikasle eta konplize saiatu batzuk salbu, gaur, ez da ia ezer aldatu, berdin ez bada, berdintsu edo okerrago jarraitzen du guztiak, ia guztiak. Epelak eta bi esan beharko genituzke.

Zenbaitentzat, izan ere, zure lanak ez omen “behar besteko akademikoak”, “behar besteko neutralak”, “inongo al-dizkari brilodun atzeritarretan argita-ratuak, ez eta argitaratzekoak”.

Izan ere, zure lanak euskarazkoak izan, herri zapaldu batekin konprometituak, jende xumearen giza kondizioaz arduratuak, jendearentzat idatziak. Inongo akademia kolonial, neoliberal, sasineutral eta aldizkari brilodunak lo-tsagorritzeko moduko ispiluak.

Hizkuntzaren hautuaz hitz egite-ko tartea ere hartu genuen Ibaetako goiz hartan, hizkuntzaren hautua gure kasuan zenbaterainoko substantzia-la denaz, eta zergatik idazten zenuen euskaraz eta zergatik ez zenuen nahi zure lanak ondoren, erdaretara itzul-tzeaz. Hori hala adierazten zenuen, ez behin eta ez bitan. Zure lanak euskaraz idazteaz gain erdaretara itzultzerik ez zenituen nahi. Gaurko kultur joeraren antipodetan.

“Nire obra ia dena euskaraz dago. Zergatik? Erabaki pertsonala da. Baina holako erabakiak hartu eta bai gero eutsi, lagunartean egiten da”, diozu zure testu batean. Beste elkarrizketa batean berriz, beste hau, “Zertzat daukazu zure burua?” galdetu eta: “Euskararen lan-giletzat. Puntu. Beste ezer ez. Ez naiz literatoa, ez naiz filosofoa”.

2013an zenioen: “Une honetan ezin-bestekoa da euskaldunok geurea eta geurea bakarrik izango den mundu es-piritual bat sortzea: geure kontuekin, geure mitoe-kin, geure pentsamenduaren azterketarekin, filosofiako geure mitoe-kin... Geure eta geure eskusiboa den barne mundu bat sortu. Nik uste dut oso inportantea dela. Eta hori ez diogu ino-ri ematen. Ez ezkutatu nahi dugulako, baizik hori sendo barruan eduki arte ez dugulako geure burua osatuta izango. Barrutik puskatuta gaudenok, hori edu-ki behar dugu”.

Zure lanak geure-geurea izango den mundu baten alde egindako hautua dira, gure mundua, euskaldunon unibertsoa aberasteko eta sendotzeko egindakoak. Euskaraz eta euskaratik sortu eta elikatu-tako unibertsoa, unibertso propioa, gero eta ahulago eta higatuagoa dagoen hori.

Eta hala, oinordetzan, herri ondare gisa, altxor bat utzi diguzu, geure geu-rea. Euskaldun guztiona. Itzela! A zer altxorra! ●

Testua, osorik, argia.eus-en.

EKONOMIA

Bulkadetatik, ezinbestean



NAROA ELORTZA
GORROTXATEGI

Bi gai mahai gainean, ezinbestean. Bate-tik, CAF eta Palestina. Bestetik, PSO Eren bueltako ustelkeria sarea. Nondik hasi eta non bukatu ere ez dakit, bulkadez betetako artikulua izango dela jakinda.

Nazio Batuen Erakundeak 40 enpresa salatu ditu, CAF tartean, eta Gazako genozidioan enpresa-aliatu gisa aurkeztu ditu. Piramidearen punta soilik omen da, eta ziur zuzenean eta zeharka Euskal Herriko hamaika enpresa izango direla genozidioarekin eta okupazioarekin negozioa egiten ari direnak. Sidenorrek ustez eten ditu Israelekin dituen negozioak, BDZ (Boikota, Desinbertsioak, Zigorak) mugimenduaren eta sindikatuen presioen eraginez. Zaila da, baina, eskualde oso bat mantentzen duen enpresa bati buruz ari garenean, langileak ere jabe direnean, funts publikoak tartean daudenean.

Ez dugu zertan hain muturrera joan behar, baina. Hitz egin dezakegu kontsumismo kooperatiboaz, hitz egin dezakegu kutsadura sortzaile nagusienetakoak diren lan elkartuko kooperatiba industrialez, hitz egin dezakegu (praktikan) maila sozioekonomiko jakin batentzat diren hezkuntza proiektu kooperatiboek, hitz egin dezakegu proiektu kooperatiboek azpikontratututako garbiketa zerbitzu prekarioek. Gauza askori buruz hitz egin dezakegu, gure inkohherentzien jabe egin eta hortik ekinez.

Eta alderdi politikoetako ustelkeria. Zer esango dizuet ba! Nahiko nuke Madrilgoaren oihartzuna izango balute EAJren bueltako ustelkeria kasuek. Baina eskuinaren ustelkeria ez da hain erraz salatzen, eskuina boterean dagoenean.

Dena den, esleipenei buruz ari garela, beste eredu sozioekonomiko bat bultzatzeko aukera zabaltzen digutela gogoratzea ez dago soberan. Oinarriak moldatuta, bultza genitzakeelako proiektu kooperatiboak, elkartasunean oinarritutakoak, bizi baldintza duinak eskaintzen dituztenak, irabaziez harago begiratzen dutenak. Borondate eta bisio politiko beharra, hemen ere. ●

ANALISIA



EUSKALERRIA IRRATIA

Jaiak ere, gizonenak?

LEIRE ARTOLA ARIN

Uda giroan barneratuta, heldu dira herriko festak, baita sexu erasoen salaketan gorakada ere. Gozamenerako guneak sortzeko hilabeteetako lana egiten dute jai eta txosna batzordeetako kideek, eta gorai patzekoa da espazio horiek bermatzeko herritar boluntarioek egiten duten ahalegina. Herriko festak denontzat eremu seguru bilakatzeko esfortzu handia egiten dute, mugimendu feministak bultzatuta. Baina askotan korrontearen aurka igeri egitea bezalakoa da. Indarkeria oinarri duen jendarte matxista, arrazista eta LGBTfobo honen kontrol gabeko muturrak azaleratzen dira parranda giroan, eta protokolo feministek egoera kudeatzen laguntzen badute ere, gizonen ardura-hartzerik gabe jai dugu.

Uler dezagun zer den ardura hartzea, edo gutxienez zer ez den. Ardura hartzea da, adibidez, erasorik ez egitea, gizon zishetero zuri gisa espazioa nola okupatzen duzun ikustea, desberdintzea ligatzea eta astuna izatea, zure komentarioek edo presentzia hutsak non molestatzen duen identifikatzea, zure *anaien* eraso fisiko zein ahazkoen konplize ez izatea. Mugimendu feministaren urteetako lanari esker gizon batzuk hasi dira ohartzen ezin dutela lehen bezala jokatu, baina askotan ez dute ulertzen nola jokatu behar duten. Ez, ardura hartzea ez da eraso egin duen laguna baztertzea, alabari edo arrebari paternalismoz kontuz ibiltzeko esatea, zure lagun emakumeekin ligatzen ari den gizonari kontuak eskatzea –emakume horiek zeureak balira bezala–, eraso bat ikusi eta gizona jipoituz erantzutea edota Poliziari deitzea –erasoa jasan dutenen nahiak zein diren galdetu ere egin gabe–. Ez, hori ez da ardura hartzea, aitzitik, hori ere indarkeria da, emakumeak edo zapal dutako gorputz horiek berriro ere zapaltzen dituzulako. Ulertzen?

Aurten ere sanfermin bezperetan Iruñeko kaleak hartu dituzte Iruñerriko feministek, eta argi utzi dute indarkeria matxista orori erantzuteko antolatuta daudela: “Autodefentsa feministaz erantzungo dugu”. Manifestazio zaratsuan, *matxiruloei* esan diete parranda amaitu zaiela, eta gogorarazi dute Poliziak ez dituela zaintzen, baizik eta lagunek. Iruñerriko mugimendu feministak emakumei dei egin die espazio publikoak okupatzera: “Kalea, gaua, gureak dira”. Halere, ez da hain erraza emakumeok tokia egitea plaza publikoetan, festa ereduak ez baitu laguntzen. Uztailaren 6ko txupinazoko irudiak ikustea besterik ez dago; ez da kasualitatea gizonen masa zuri-gorri itogarrian hain emakume gutxi egotea.

Festen inguruan alarmismoa eta beldurraren kultura sustatzeak ere ez du laguntzen emakumeak kalera lasai ateratzen. “Hedabideek erasoen zenbaketa hutsa egiteak elikatu dezake emakumeen edo beste identitate batzuen etsipen eta larritasun sententzia, eta ez dakar gizonen interpelaziorik”, azpimarratu ziguten indarkeria matxistari buruzko LARRU Neko 306 zenbakiko mahaikideek.

Guk autodefentsa feminista dugu babesgune, baina, jaiak denonak izan daitezten, gizonen hartu behar duzue ardura, eta pauso bat atzera egin. Gu ez gara etxean geratuko. ●

Jimenez Escudero



JUNE FERNANDEZ

1925 urtea izango balitz, akaso emakume erraketistak izango lirakeke *Zeruko Argi*ko aktualitate orrialdeetako protagonistak. Agian haien kirolari merituak goraiatzeko, agian feminitate arauak desobeditzeagatik seinalatzeko. Nire buruari agindu diot haien izenak memorizatzeko ariketa: Chiquita de Anoeta, Arane, Emili, Albisu, Amparito, Chiquita de Aizarna, Asteasu.

1961. urtea izango balitz, akaso kronikaren bat topatuko genuke bi ahizpa ijito donostiarrek Parisen estreinatutako ikuskizunari buruz: *Flamenco experimental, expresión plástica del cante jondo* [flamenko esperimental, cante jondoaren adierazpen plastikoa], Rosario Escudero dantzariaren *performance* garaikidea, Maria Paz Jimenez margolariak sortutako jantzi eta eszenografiarekin.


Merkatari alderraien alabak ziren Jimenez Escudero ahizpak, Gaztela Leonetik Donostiara helduak. Euskaldun burges batekin ezkondu zen Maria Paz, eta hala lortu zituen artista gisa nabarmentzeko eta bere ahizparen proiektua babesteko beharrezkoak ziren baldintza materialak eta harreman sozialak.

Espresionismoa landu eta gero, arte abstraktuarien aitzindari bihurtu zen, Parisko abangoardiekin lotura handia zuelako eta joera berriekin bat egiteko gaitasuna izan zuelako. Jorge Oteiza, Blas de Otero edo Gabriel Celaya izan zituen adiskide eta miresle; baina haiena ez bezala, Jimenezen memoria izan da ezabatua. Gutxiago dakigu Rosario Escuderi buruz, soilik dantza eskola bat ireki zuela Irunen.

Patriarkatuak ahaztu nahi dituen izenen jagoleak dira ikerlari, kazetari, aktibista edota berdintasun teknikari feministak. Olatz González Abrisketa antropologoari zor diogu ARGIAko erraketistei buruzko Eli Pagolaren erreportajearen mamia. Haizea Barcenilla eta Ane Lekuona arte historialariei zor diegu Maria Paz Jimenezen erakusketaz gozatu izana Kutxa Aretoan, AMUGE emakume ijitoen elkartearekin elkarlanean. AMUGEn "Romani Hadid 2: Emakume ijitoen urratsen atzetik" proiektura ekarri dugu haien ikerketa.

Zaida Fernandez ikerlariari zor diogu, besteak beste, eremu instituzionalean ere, udalgintzatik, herrietako emakumeen aztarnak mapatzearen lan-ildoak. Eibarko Berdintasun teknikaria da egun Fernandez; Emakumeen Etxea erakutsi zidan berriki, eta ba al dakizue nortzuk diren eraikin barruko argazki-mural nagusiko protagonistak? Erraketistak. ●

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



Bitxoak



DIANA FRANCO EGUREN

Palentziako amama oso emakume soila zen hitzetan. Bazituen zenbait hitz dena adierazteko balio zutenak, tartean *bitxo* hitza: berba horren baitan kabitzen ziren zomorroa, behia, txakurra... eta batzuetan baita gizakia ere. Bitxoek auzokide latzak dituzte gizakiongan, ez baikara espezie lagunkoia, batez ere intsektuen kasuan. Horren adierazle, 2019an argitaratu zen *Etnofaunen mundu mailako beherakada* ikerketa, non ohartarazten den zomorroen biomasa eta aniztasunak azken 40 urteetan jasandako beherakadaz.

Gaiaz kuxkuxeatzen, gizakion bizitzetan hain funtsezkoa den gaueko argiztapena zenbait bitxorentzat oso kaltegarria dela aurkitu dut. Adibidez zomorro hegalaria eta hegazti migratzaileentzat. Zomorroen kasuan, eguzkia eta ilargia erreferentziatzat hartzen dituzte haien gorputzen posizioa finkatzeko. Astroen argia eta argi artifiziala ez dituzte bereizten, eta azken horrekin topo egiterakoan, inguruan hegaldi eten-gabea egiten dute, zonbiak bailiran, posizioa mantentzeko senak gidatuta, nekeak jota jausi eta hil arte. Hegazti migratzaileen kasuan, askok gauez egiten du migrazio bidea, eta egunean atsedean hartu. Ibilbidean zehar, baina, ugarik bizitza galtzen du, hirietako argiak egunsentiarekin nahastuta erai-kinen aurka hartzen dituzten kolpeengatik.

Zorionez, bada munduan beste espezieengan sortzen ditugun kalteekin oso sentibera den jendea, eragin horiek txikitze-ko lan egiten dutenak. AEBetako Birdcast proiektua, esaterako, oso interesgarria iruditu zait. Herrian zehar banaturik dauden meteorologia-zaintzako radarren azpiegitura berrerabilita, denbora errealean txorien migrazioen intentsitatea erakusten duen mapa sortu dute. Informazio horrekin, txorien ibilbidean dauden eraikin arriskutsuak ezagutu dituzte, eta txoriak igaro behar diren orduetan bertako argiak itzaltzeko informazioa bidaltzen dute. Berrikuntza teknologikorako eremu erraldoia dugu hemen, bizitza erdigunean jartzen duten herriek jarraituko duten berrikuntza ildoak. ●



AFP/BENJAMIN CREMEL

BBCK Israelen alde egitera behartzen dituela salatu dute bere langileek

JON FERNÁNDEZ GONZÁLEZ

Israel/Palestina informazioari buruz BBCren erabaki editorial opakuen eta zentsuraren inguruan gure kez-
kak adierazteko idazten ari gara", dio idatziaren lehen esaldiak, eta zentsu-
ratutako dokumental baten berri ematen du hasieran. BBCK Gaza: Medics Under Fire dokumentala emititzea ez zuela onartu salatu dute gutunean. Dokumentalak hedabidearen politikak eta arauak betetzen zituela ziurtatu dute, baina "erabaki politikoa" izan zela ez zabaltzea, BBC "Israelgo Gobernuarekiko kritiko hautemanak izateko beldurrak jota dagoelako".

Gutunean adierazi dute ez dutela bilatzen BBC alde batean edo bestean kokatzea, kazetariak "beraien lana gardentasunez egitea eta testuinguru egokian berriak ematea" baizik. "BBCKo goi mailetan hartutako erabaki opakuek zapuztu dituzte gure ahaleginak, eztabaidarik eta azalpenik gabe". Hutsune ugari seinalatu dituzte BBCKo kazetariak: "Erakunde gisa ez dugu analisi esanguratsurik egin Erresuma Batuko Gobernuak palestinaren aurkako gerran parte hartu izanari buruz. Ez dugu arma salmenten edo horien ondorio juridikoen berri eman".

"PALESTINARREN AURKAKO ARRAZAKERIA"

Hori guztia "ez da kasualitatez gertatu, nahita izan da", diote gutunaren sinatzaileek, eta arazo orokorrago baten barruan kokatu dute: "BBCK Palestina-Israeli buruz ematen dituen berrien parte handia palestinaren aurkako arrazakeriak" definitzen du.

BBCKo kazetarien arabera, 2023ko urriaz geroztik telebista kateak Israeli eta Palestinari buruz argitaratutakoek ez dituzte komunikabidearen "estandarrik" betetzen. "Amildegia bat dago BBCK Gazan eta Zisjordanian gertatzen ari denari ematen dion jarraipenaren eta gure publikoak ikus dezakeenaren artean, iturri sinesgarri askoren bidez zabaltzen ari baita, giza eskubideen erakundeak, NBEko langileak eta tokian tokiko kazetariak barne". Errrealitatea desitxuratzea egotzi diote beren komunikabideari: "Jakin badakigu BBCren informazio-eskaintza ez datorrela bat errealtatearekin. Telefono bat duen edonork ikusi ditu Gazako eta Zisjordanian irudiak, baina BBC News-ek 'gai konplexua' dela esanda nahasten ditu". ●

Petronor findegia du ingurumen inpaktu handiena Euskal Herrian

 JON FERNÁNDEZ GONZÁLEZ

EHuko Ekopol ikerketa taldearen datuen arabera, Bizkaia da Euskal Herrian ingurumen inpaktu handiena eragiten duen lurraldea, guztizkoaren %52. Euskal Herrian ingurumen-inpaktu handiena duten 25 industria-instalazioen artean, Muskizko Petronor petrolio-findegia da kutsakorrena, instalazio guztien inpaktuen %25.

Ekopol ikerketa taldea "Amalur EIS" tresna garatzen dabil 2022az geroztik, Euskal Herriko eta Europako industriaren inpaktua neurtzeko. Tresna gai da dimentsio askotariko analisiak lortzeko, kutsadura datuak, ingurumen inpaktu motak, industria sektoreak eta eremu geografikoak gurutzatuta. Europako erregistroaren informaziotik abiatuta, 30.000 instalazio industrial baino gehiagotan lurzorura, airera eta uretara egiten dituzten isurpenak aztertzen ditu. Europan Alemania da inpaktu gehien eragiten duen herrialdea. Eta tresna horri esker dakigu Bizkaia dela Euskal Herrian kutsadura gehien eragiten duen lurraldea. Aztertutako multzoan, gehien kutsatzen duten 25 instalazioetatik hamar daude Bizkaian; eta sailkapenean, atzetik dator Nafarroa, zazpi instalazio-

rekin -inpaktuaren %23,7-; gero, Gipuzkoa, bostekin -inpaktuaren %17,8-; Araba, hirurekin -%6,3-; eta Ipar Euskal Herriak %0,5eko inpaktua eragin du -azken horren industria kutsakorrena 55. postuan agertzen da, metalaren sektorean-.

Petronor enpresarenak dira kutsadura handiena sortzen duten industria instalazioak. Horrez gain, mineralen industriako sei planta nagusiek %16,9 eragiten dute eta zazpi zentral termikoek, berriz, %17. Zaborraren eta ur lohien kudeaketari ingurumen eraginaren %12,5 dagokio, eta metalen ekoizpenari %7,9.

Ekopolen hitzetan, "lan honek agerian uzten du giza jardueraren monitorizazioak eta kontrolak garrantzi handia duela gure gizartean; ez bakarrik industria instalazio handiei dagokienez, baita askotan oharkabea igaro daitezkeen beste instalazio txikiago batzuei dagokienez ere". Ekopolen asmoa analisia garatzen jarraitzea da, eta 2025ean beste eremu batzuetara eraman nahi dute ikerketa: integratu gabeko industria txikia, ibilgailuen trafikoa, bizitegi-sektorea, nekazaritza... ●

MOTZEAN

Uztailaren zazpian, bost haur dituen familia bat etxegabetu dute Bilboko San Frantzisko auzoan. Auzokide ugari gerturatu badira ere etxegabetzea gelditzen saiatzera, ez dute lortu.

1.150 enpresa edota norbanakok ia 1.300 milioi euroko zorra dute Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ogasunekin. Erdia, gutxi gorabehera, Bizkaian.

BBK Live jaialdiak langileak esplotatzen dituela salatu du Bilboko Bilboko Kontseilu Sozialistaren Laneko Autodefentsa Sareak.

Erregistratutako ekainik beroena izan da aurtengoa Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Europar Batasuneko "Copernicus" behategiak dio larrialdi klimatikoa dela-eta bero boladak "maizago" egongo direla.

Euskal Herrian Euskarazek eta Gazte Euskaltzaleon Sareak TindEHer proiektua jarri dute abian. Gazte taldeen arteko bikoteak osatuko dituzte, eta haien arteko harreman informalak euskaratik eta euskaraz garatuko dituzte.



GAZA HUMANITARIAN FOUNDATION: PALESTINARRAK DESPLAZATZEKO ENEGARREN BIDEA

Lau astetan 550 hildako eta 4.000 kolpatu egon dira GHF fundazioaren banaketetan. Jakiaz gain, tiroak ere banatzen dabiltzalako sionistak. 170 GKEk dute egitura horren desagerepena galdatzen. Baina Israelek beregain nahi du laguntzaren saila ere –finean, gosetearena badelako gerrako arma hilkorra–. Maiatzaren

16an Israelek abiatutako *Gedeoneko orga* operazioaren baitan kokatu behar da GHF. Azken horrekin "Gazaren konkista" eta gazatarren "hautuzko abiatzea" du Netanyahu helburu. Nola? Jaki gune bakanetara jendea desplazatuta eta bizilekuak beti eta beti bonbardatuta, behingoan itzuli ez daitezen.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Ez dago egutegi argirik. Batzuetan, goizeko laueta irekitzen dituzte ateak, beste batzuetan geroago. Bezeratik daude esperoan palestinarak. Azkenean, ateak irekitzen direnean, kolapsoa da. Ez dago jende-lerrorik, ez langilerik, ez seinalerik. Zarata, errautsa eta beldurra, besterik ez. Putreen gisara inguratzen dituzte droneak. Bozgorailutik ahots bat, oihuka: 'Lau minutu. Hartu ahal duzuna'. Hondarraren erdian uzten dituzte janari kutxak, baina ez dago nahikorik. Inoiz ez dira nahikoak. Jendea presaka doa metarantz, elkarri bultzaka, elkarren gainean igota. Labanak ateratzen dira. Borroka sortzen dira. Umek oihu egiten dute. Gizonak erortzen dira. Emakumeak arrastaka dabilta. Gutxi dira kutxa bat hartu eta hari eusteko gai diren zortedunak. Orduan tiroketa hasten da. Masakre-eremu bihurtzen da hareazko plaza. Bizirik ateratzen nahian korrika dabilta. Anitz tirokatuak daude. Batzuek zauriturik arrastaka ibiltzea lortzen dute. Lagunek, senideek edota ezezagunek eramanik dira beste batzuk. Besteak bakarrik odolusten dira hondarretan. Gazan biziraute dabilen Taqwa Ahmed Al-Wawi idazlearen kontakizuna da, ekainaren 29koa, Al-Jazeera komunikabidean irakurri dezakeguna.

Amerikarrek eta israelarrek bideraturiko GHF Gaza Humanitarian Foundation- en janari banaketaz ari da; hesiz inguraturiko lau gunetan bideraturikoa, maiatzaren

26az geroztik. Lau gune bi milioi herritarrentzat –GHF aitzin, 400 banaketa gune ziren Gazan baina–. "Heriotzaren korridoreak" deitzen dituzte, badakitelako israelarren tiroen artetik eta jende-metatze arriskutsuetatik bizirik ateratzea erronka zaila izanen zaiela. Baina, goseteak eta jaki falta orokortuak horretara bultzaturik, badaoz. Israeldar soldadu batzuen lekukotasunetan oinarriturik, *Haaretz* egunkariak argira ekarri du janari bila hurbildutakoak tirokatzeko manua dutela, eta hori "mehatxu ez badira ere".

Martxoaren 2az geroztik ez zen kamioi bakar bat sartu, erabateko blokeoa erabakia zutelako sionistek –aitzin, oztopoz oztopo, dozenaka pasatzen ziren, baina NBERen arabera, beharrezkoak zituzten 500 kamioiak baino anitzez gutiago–. Elikadura segurtasuna neurtzen duen IPC sailkapenaren arabera, "Gazako biztanleria osoa da elikadura-segurtasunik eza handian eta milioi erdi pertsona –bost pertsonatik bat– gosetean daude". Gose-tea arma gisa erabiltzeko gerra-estrategia geroz eta begi-bistakoa zela, kamioi bakar batzueri utzi zieten pasatzen, baina laguntza humanitarioa beraiek kontrolatzeko baldintzapean. Edo hobeto erranda, nazioartearen eta NBERen kontrolaz kanpo izateko baldintzapean. Orduz geroztik, horretan dira. Baina, kasu: palestinarrentzako laguntza humanitarioa ez da Israelen gogoan. Bestela, zergatik debekatu

nazioarteko laguntza oro? Zergatik nahasi oxikodona droga gogorra irin zakuei? Finean, palestinarren garbiketa etnikorako urrats berria dute laguntza humanitarioz moztortuta. Lau astez, laguntzaren bila zihoazen 550 palestinar hil eta beste 4.000 kolpatu dituzte Tsahalek edota sionistek sustengaturiko pertsona armatuek. "GHFren neurriak etsipen-, arrisku- eta heriotza-ziklo bati eusteko diseinatuta daude", irakurri daiteke uztailaren 1ean 170 bat Gobernu Kanpoko Erakundek zabalduko agirian. Egitura hori hestea galdatzen dute eta UNRWA Palestinar Iheslarietako Laguntza eta Lan Bulegoak, Palestinako gizarte zibilarekin eta eragile humanitarioekin elkarlanean bideraturiko laguntzaren berrezartzera deituta.

OINARRIA ETA ZERUMUGA: DESPLAZAMENDUA

Israelarrek bideratu nahi dieten patua desagerepenarena dela badakite palestinarrek. Horren barne ikusten dute GHF egituraren funtzioa ere. Gadi Algazi israeldar historialariak ere gauza bera dio, Orient XXI-n plazaratu berri duen *Gaza. Affamer-expulser, expulsar-affamer* (Gaza. Gosean atxiki-kanporatu, kanporatu-gosean atxiki) analisisan. Netanyahuaren gobernuak adostutako lau banaketa guneetan jartzen du begirada: bata da Gazako zerrendaren zentroan eta beste hiruak hego-hegoan, Rafahren mendebaldean –hots, ez dago



Argazkian, uztaila hasiera honetan gosez hildako Ayyub Sabir Abu al-Hasin. 29 urte zituen. Palestinarren kontrako gerra-arma gisa erabiltzen du gosea Israelek. (Argazkilaria: Anadolu/Getty Images)

loturik biztanleriaren kokapenaren eta gune horien artean-. Algazik argi du: "Helburua baitute 'populazioaren desplazamendua' hegoalderantz bultzatzea, ahal dela, 'kontzentrazio eremu'etara'. Baina neurriak hartu behar dira gizateriaren aurkako krimen bati dagokiona ezkutatzeke. Horretarako, lehenik eta behin, biztanleei janaria eman ziezaieketen erakunde humanitarioak ezabatu behar ziren, eta banaketa esperientziarik gabeko eta armadaren esku dauden erakundeekin esku utzi behar zen". Netanyahouk berak errandakoa da, "jatorrizko lekuetara ez itzultzearen baldintzapean" bideratuko litzatekeela laguntza.

Aspaldikoa da palestinarrak Gaza uztearen amets sionista. Israelen sorreraz geroztik ari dira lekukoekin behar minimoak oztopatzen, desesperazioaz beraien lurra utziko dutelakoan. Baina ez dute lortu, eta oraingoan ere ez: taldeko indartsuenak eta osasuntsuenak doaz jaki bila, itzulerako bidea egiteko aski indar dutenak eta gainera, Gaza iparral-

deko jendea ez dute konbentzitu –"Nor abiatuko litzateke bero sargorian bidaia luze bat egitera, dauden lekuko senideei ezin badiete janaria ekarri?"-. Beraien etxea ez abandonatzeko palestinarren determinazio sendoa nabarmentzen du historialariak.

Behin betiko deportazioa lortzeko ez da nahikoa jendea kanporatzea. Deserrotu egin behar dira, eta itzultzeko edozein aukera kendu. Hori horrela, paraleloki, suntsiketak areagotu ditu Tsahalek, gosearen bidez berehalakoan lortzen ez dutena eraispene bidez eskuratzeko. Netanyahouk berak dio: "Gero eta etxe gehiago suntsitzen ari gara, ez dute nora itzuli. Ondorio logiko bakarra gazatarrek Gazako zerrendatik kanpo emigratu nahi izatea izango da. Gure arazo nagusia harrrera herrialdeetan dago".

Denbora aitzina doala, hiru "gune humanitario" ditu Israelek aurreikusten: Gaza hiriaren ingurukoa –50 km² inguru–; erdialdeko kanpalekuetakoak –85 km² inguru–; eta Mawasirenak, hegoal-

deko hondartzan zehar –8 km² inguru–. Hots, orain arteko lurraldearen %40an metatuko lirateke bi milioi jende. "Kontzentrazio-eremu" horien tamaina txikiak, handik ateratzeko debekuak zein bizibiderik eta azpiegiturarik ezak 'kontzentrazio-esparruez' hitz egitera daramate", Algaziren arabera. Rawhi Fattouh Palestinako Kontseilu Nazionalako presidenteak ere "deportazio orokortu bor txatua" salatu du.

Finenak, jakiak ala bonbak, esku berek banaturikoak dira, eta maiatzaren 16an abiatutako *Gedeoneko orga* operazio militar sionistaren baitan kokatu behar dira: "Gazaren konkista" eta palestinarren "hautuzko abiatzea" dituzte helburuen artean. Abisua emana du Tsahalek: etenik gabeko "tiroketa intentsoak" bideratuko dituzte, hiru gune horietara sartzea behartzeko. "Garbiketa etnikoaren" zantzu handiak daudela dio NBeko Giza Eskubideen goi komisarioak, eta halarik ere berdin segitzen dute nazioarteko estatuburuek: begiak estalita, konplize. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Rakel Etxebarria Lexartza

IRRINTZIAREN TRANSMISIO EZ-ETENA



NIK NEURE IRRINTZIA EGITEN DUT, AITA-AMEI IKASITAKO ZANTZOA



Irrintzi bat entzun da, mendi tontorrean... Eta balizko tontorra Gorbeiaiko gurutzea bada, baliteke –bazitekeen, garaian– irrintzilaria Rakel Etxebarria izatea. Irrintzia han eta hemen, “zantzoa” da Arratian, hala Orozkon nola Zeanurin. Gurasoei ikasia inoiz ez du ahaztu Rakelek. Eta elkarrizketan ere, nahi beste zantzo egin dizkigu, pozik.



MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Zeanurin jaioa zaitugu, aspaldi Laudioko Aretan bizi zarena.

Zortzi neba-arreba izan ginen etxean. Ni, gazteetan bigarrena. Ahizpa zaharrena, Isabel, hemen bizi zen, ezkondua. Oroz-kokoa zeukan gizona, taxilaria, eta Aretan, berriz, taberna, denda, eta telefono-zentrala ere eduki zuten. Akordatzeko naiz, 16 telefono zenbaki ziren orduko denbora Aretan, gehienak fabriketakoak –bakarrik bi etxe egon ziren telefonoa zeukatenak–, eta han ibiltzen nintzen ni kablea zulo batean eta bestean sartzen [larako telefonoa], jendea elkarrekin ko-

munikatzeko. Eta telegramak ipintzen ere ikasi nuen. Eskola amaitu eta etorri nintzen ahizparen ondora lanera, 14 urterekin. 1960an izan zen hori.

14 urte arte Zeanuriko eskolan ibili zinen.

Baina ez herrikoan. Gu Lexartza base-rrikoak izan gara, Uribe auzokoak. Eta eskola ere Uriben eduki genuen, ez Zeanuri behean. Mutil eta neska, denak batera ibili ginen eskolan, gela berean, alde batean mutilak eta bestean neskak. Han dena erdaraz egin behar zenuen,

kastigua zen bestela. Bazen itsulapiko bat, eta erdaraz egiten zuenak etxetik dirua ekarri eta sartu behar izaten zuen han. “Txinitoentzat” esaten zuen mais-trak. Guk euskaraz baino ez genekin eta, eskolan, berriz, dena zen erdaraz. Dena espainola, eta Cara al sol kantatzen genuen eskolara sartzean, patioan.

Eta Aretara etorri zinen, erdara apur bat ikasita...

Bai, eskolan ez zen beste erremediorik! Aretan erdaraz egiten zen, baina orain asko egiten da euskaraz...



Rakel Etxebarria Lizartza

ZEANURI, 1946



Lexartza baserrian jaioa, aita-amek bezala eginez ikasi zuen zantzoa botatzen. Derrigorrezko eskola amaitu eta lanean hasi zen Aretan, ez zantzo ez irrintzi, harik eta Orozkon irrintzi txapelketa asmatu zuten arte. Plazara atera zuten andrea, eta jantzi zuen txapela. Harrezkero kito irrintzia isilean edukitzea. Berdin bota die familiakoei eta lagunei. Eta bota dizkiugu guri era batekoak eta bestekoak dozena erdi, elkarrizketan ari ginela. Grabagailua dugu lekuko.

Aretara etorri zineneko, irrintzia botatzen ikasita zeunden zu. “Zantzoa” omen da hemen. Orain, berriz, irrintzilari taldea ere osatua duzue. Ez zarete Garaionen bildu zaharrak.

Hamaika lagun gara taldean, hamar andre –neu zaharrena, 79 urte–, eta mutil bat, 26 urtekoa. Orain urte bi Bruselan ibili ginen, eta aurren ere joan gara hango oihulari batzuekin batzera. Haiek ez irrintzia eta ez zantzoa, haiek *juju*-a egiten dutela esaten dute. Afrikarrak eta beste leku batzuetakoak dira. Elkartzen gara eta bakoitzak dakiena egiten du; haiek mihiaz, eta guk eztarritik. Nik ez dut haien modura egiten ikasi, eta eurek ere ez nirea.

Taldea osatu duzuela esan diguzu...

Horretaz Nerea [Iglesias, Aiaraldeko Faktoria] arduratzen da. Jakin zuen nik zantzoa botatzen banekie-la, eta deitu zidan, joateko, taldea osatu nahi zutela. Nereak kontakturen bat-edo badauka Bruse-lan, eta halaxe joan ginen. Eta handik ere etorrira daude sei irrintzilari, eta ibili ginen hemen bateko irrintzi eta besteko *juju*. Gure baserrira ere joan ginen, eta bota genituen irrintziak. Ederra izan zen.

Zuek zantzo edo irrintzi, haiek *juju*... Oihu guztiak ez dira berdinak, hortaz.

Ez, diferenteak! Gure aitak ere ez zuen gure amak bezala egiten. Aita zen artzaina, eta joaten zen Lexartzatik Gorbeiarantza, eta mendira joaten zenean amari zantzoa botatzen zion. Haren zantzoa zen “uuuuuu...!” [Aitaren zantzoa egin digu, fabrika bateko sirenaren antza-edo du]. Eta amarena, berriz, zen “iiiiii... ijijiji!” [Ohiko irrintzia] “Hemendik noa ja! Agur!” esan gura zuen aitak. Eta nik aitari eta amari entzunda ikasi nuen zantzoa botatzen, txikitan, etxean. Nire bi ahizpek ere badakite irrintzia botatzen. Nebak ez du ikasi. Ez dakit zergatik. Ez da neska edo mutil kontua, aitak bazekien-eta. Baina nebak ez daki.

Zuk aita-amei entzunda ikasi zenuela esan diguzu.

Bai. Haiek zelan egiten zuten, nik ere euren modura. Gainera, orduan ez zegoen telefonorik, zantzoa baino ez. Aitak eta amak komunikatzeko erabiltzen zuten zantzoa. Ez da irrintzia egitea bakarrik, komunikatzea da. Aitak artzain txabola zeukan Gorbeian, Arabako aldean. Joaten ginen, eta askotan bota genituen han zantzoak. Eta ederto! Askok gustatzen zitzaigun, bai niri, bai neure ahizpei.

Beste zantzolaririk bazen Zeanurin? Edo Uriben?

Ez dakit. Jendeak oihuak egiten zituen mendira-eta joaten zenean. Guk etxean ikasi genuen zantzoa egiten. Orain *irrintzia* esaten da. Jakina, “... irrintzi bat entzun da, mendi tontorrean...”. Baina Zeanurin, Lexartzan, *zantzoa* zen. Eta Orozkon ere hala esaten da. Egia esanda, Orozkon bota nuen lehenengoz zantzoa jendearen aurrean.

Nola izan zen jendaurrean agertze hori?

Zantzo-txapelketa egiten dute urtero-edo, aspaldi, sanantoline-tan, eta, behin, parte hartzeko eskatu zidaten. Urte asko dira. Hogeitaz baina gehiago-edo. Parte hartu nuen, eta txapela irabazi ere bai. Gero, Muruetan [Orozko auzoa] ere irabazi nuen. Badauzkat txapel batzuk, bai. Hamabi zantzolarik ere parte hartu izan dugu txapelketa horietan. Batzuek ez dakite zantzoa botatzen, baina aproba modura-edo saiatzen dira zantzoa egiten. Saiatzen dira, gutxienez, nahiz ondo botatzen ez dakiten.

Guk dakienari galdetu behar: nola botatzen da zantzoa?

Hasi behar zara suabe-suabe, arnasarik hartu barik, eta gorantza beti, eta eutsi, eta ondo amaitu, goian amaitu, ito barik [irrintzia egin du]. Nik, lehenengo, aitari eta amari ikasitakoa egiten nuen. Gero konturatu naiz zelan egin behar den ondo. Orain kasik urtero joaten gara Orozkora, irrintziak ikustera, edo irrintzia botatzera



ELKARTASUNA

“Irrintzilariok Garaionen-eta elkartu izan garenean, adibidez, beroketa egiten dugu lehenengo; gimnasia apur bat bezala: gorputza mugimenduan jartzen dugu, ahoa, boza... Berotzeko, adibidez, txorien kantua egiten dugu; nik kukuarena egiten dut, eta zerrotearen zirri-zarra ere bai. Gero, bata besteari irrintzia botatzen hasten gara... Bakoitzak berea, eta bakoitzak bere modura. Eta oso ondo pasatzen dugu”.

GENEROA

“Ez dakit zergatik dagoen hain gizonezko gutxi irrintzilarien artean. Arratia guztian ia ez dut ezagutzen mutil irrintzilariarik, denak neskak. Hala ere, Orozkon bada mutil bat irrintzia oso ondo botatzen duena. Batzuetan, gizonak laburrago botatzen du, baina nire ustez, laburra botatzen baduzu, baina polito, berdin balio du zantzoak. Baina egia da zenbat eta luzeago izan, orduan eta ederragoa dela”.

Azken hitza

TRANSMISIOA

“Nire neba Enrikeren alaba Maiderrek polito ikasi du zantzoa botatzen. Eta ikasi du, guri entzunda, ze familiako bazkariak-eta egiteko batzen garenean beti botatzen dugu zantzoa. Beste iloba batek ere, Iratxek, ikasi du. Haren ama da nire ahizpa Maria Luisa, eta zelan amak badakien zantzoa botatzen, alabak ikasi! Ana Marik [86 urteko ahizpa, Zeanuri] ere badaki zantzoa botatzen”.

txapelketan. Batzuek eta besteak zelan egiten duten ikusten duzu. Orozkon bakarrik ez, Galdakaon ere egiten da, edo egin izan da txapelketa. Behin, Galdakaon, nire ahizpa Maria Luisak irabazi zuen txapela. Lemoan bizi da Maria Luisa.

14 urterekin Aretara etorri zinenean, bazen zantzoa botatzeko giroa?

Ez. Irrintzia isilduta egon da denbora askoan. Horregatik-edo, Aretatik Lexartzara joaten ginenean, edo Gorbeira joaten ginenean, libre botatzen genuen zantzoa. “Ze ondo!” esaten genuen. Baina Aretan orduko denboran ezer ez. Orozkoko txapelketa hartan parte hartu arte, isilik. Lagun batek bazekien zantzoa botatzen nuela, eta txapelketara joateko esan zidan, jendea animatzeko. Juanjo Respalditza zen laguna, bertsolaria. Berak darama Orozkoko txapelketaren ardura.

Noiz botatzekoa da zantzoa?

Hiletetan ere botata nago. Orduan sua beagoa botatzen duzu [eta zantzoa bota digu berriz]. Hiru-lau bider botata nago. Batean, elizan; bestean, Garratatxun, mendian, Pablo Gorostiagaren andreaken errautsak zabaldu zituzte-

nean. Beste egun baten, Aretako jaietan, herriko bazkarian, andre bat etorri eta esan zidan, erdaraz: “Rakel, ni hiltzen naizen egunean irrintzia bota behar didazu”. “Baina zer ari zara, ordea?”. Eta berak, ekin: “Rakel, hiltzen naizen egunean zantzoa bota niri, faborez”. Eta hiltzen. Eta hileta egunean, joan nintzaion abadeari, eta esan nion zelan nire lagun hark esan zidan zantzoaren kontu hori. Eta abadeak: “Bai, bai. Eta nahi duzun moduan: aldaretik nahi baduzu, aldaretik; eta korutik nahi baduzu, korutik”. Eta korutik nahi izan nuen. Lehenengoz hari bota nion elizan. Eta jendea negarrez. Gero, beste batzuek ere esan didate hildakoan zantzoa botatzeko.

Zantzoa botatzeko momentu alaiagoak ere izango dira, gero!

Bai, eta orduan fuerte botatzen dut zantzoa! Beste egun baten, gure auzoko pertsona bat, asko maite duguna, kartzelan egon eta gero libre utzi behar zuten. Jakin nuen, eta haren familiarekin joan nintzen harrera egitera [Herrera de la Mancha, 2015]. Eta irten zenean, zantzoa bota nion, eta gizajoa, zelan paratu zen! “Honaino etortzea ere, Rakel! Eta niri irrintzia botatzea!”. “Bai, bai, merezi duzu!”. Audioko alkatea izandakoa zen, Pablo Gorostiaga.



Gaur egun, zuen zantzoa ez dago isildua, eta zuen familian ere hainbatek ikasi du irrintzia botatzen. Zuen adinekotan, hiru ahizpak —Ana Marik, Maria Luisak, zuk zeuk...— ikasi zenuten, eta ilobak ere badatoz. Bai. Enrikek [neba] ez du ikasi, baina berak dultzaina jotzen du. Belarriz ikasi zuen, inora ikastera joan barik. Enrikek jotzen duen dultzaina gure aitarena zen, aita ere dultzaina jotzen zuen eta. Gure aita bertsolaria ere izan zen, eta ibiltzen zen batera eta bestera bertsoak botatzen. Basilio Etxebarria Angoitia izan zen. Ez zen famatua izan, baina ibili zen Gernikan-eta. Aita-amek urrezko ezteiak bete zituztenean, [Balendin] Enbeita bera etorri zen bazkarian bertso kantatzera. Arteako Mauriziarekin ere ibilitakoa izan zen gure aita dultzaina jotzen.

Mauriziarekin, gero!

Bai. Oraintxe paratu dute plaka bat Zeanuriko plazan. Han esaten du zelan jaio zen gure aita Zuloa baserrian, eta zelan ezkondu zen Lexartzara gure ama Feli-

sarekin. Eta esaten du artaldea hartu eta joaten zela Bilbora, errege-kabalgatara. Aitak Zeanuriko “Maite Orfeoia”-rekin hainbat emanalditan parte hartu zuen 1948-50ean. Eta, festa zenean, hantxe ibiltzen zen dultzaina jotzen. Arrabako San Inazio egunean batez ere, berak zaintzen zuen-eta aterpea. 1981ean, omenaldia jaso zuen Frantzisko Artzarekin batera. Artzak atabala jotzen zuen, gure aitaren dultzainari laguntzen. Horiek denak paratu dituzte plaka horretan.

Zuretik ezpala, hortaz.

Zantzoaz ari garela, zer sentitzen duzu zantzoa botatzean?

Halako gauza eder bat gorputz osoan, barru-barrukoa. “Ze ondo!”, esateko moduan. Eta poza.

Nola hartzen du jendeak zantzoa?

Batzuek oso pozik. Beste batzuek ez dute ulertzen. “Nondik datoz hauek!”,

esateko moduan. Beste batzuei, inoiz zantzorik ez irrintzirik entzun ez dutenei, ileak lazten zaizkie.

Irrintzia galtzeko arriskurik bada?

Egon da ezkutatua, baina orain diferentia da. Egon gara Bruselan, Santanderrren, Zaragozan... Zaragozan egon ginenean, hangoek beren jotak kantatu zituzten, andaluziarrek euren flamenkoa erakutsi zuten, eta guk geure irrintzia. Jende diferentea elkartzen garenean berba egiten dugu eta bakoitzak berea erakusten du. Zaragozako hartan, mediku bat ere etorri zen, gure eztarriak-eta zelan egiten duen irrintzia esplikatza.

Zer esango zenioke zantzoa botatzen ikasi nahi duenari?

Ez dela gaitza, saiatzeko, eta ikasteko ondo botatzen. Hasteko irrintzia botatzen. Lehenengoetan ez da ondo aterako, baina berriz saiatu, luzeago, gorago... arnasa hartu barik. Ez dago besterik. Denborarekin ikasiko du irrintzi diferentek egiten; batean, altuagoa; bestean, baxuagoa... Baxuagoa, adibidez, elizan, edo mendian inoren errautsak zabaltzerakoan. Horietan suabe, baina luzetxo. Gure irrintzilari kuadrillan hasita daude beste modu bateko irrintziak botatzen, bariazioak egiten, baina nik neurea, altuago edo baxuago, baina nik neurea, aita-amei ikasitakoa.

“”

Jende diferentea elkartzen garenean berba egiten dugu eta bakoitzak berea erakusten du

Hementxe gabilta, zantzo edo irrintzi, Aretara etorriak, baina Arratia erdigune dugula. Bizkaia gainerakoan eta beste euskal herrietan ez da irrintzirik?

Ez dakit, bada, nik! Behin, joan ginen Donostiara eta gure arteko batek irrintzia egin zuen. Ez zuen oso goian amaitu, eta emakume edadeko batek esan zion: “Irrintzia politago da, laburtzua bada ere, hobeto amaituz gero”. Donostiakoa zen emakume hura, gure adinekoka, eta trikitilaria. ●

BABESLEA:





Iritziak

Europako ongizate estatua gainbeheran?



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Europako ongizate estatuak munduan zehar izugarritzko miresmena izan du herritar xeheen artean, ez hainbeste enpresari eta agintarien gehiengoan. Izan ere, miresmen hori areagotu egiten zitzaigun iparraldeko herrialdeetatik pasatzen baginen, izan lan bat egin behar bazenuen edo ikasle moduan zerbitzuren bat jasotzerakoan (1950-1980). Baina, tamalez, urrezko aro horren jarraipena amaitzear dago, baita eskandinaviar herrialdeetan ere.

Zergatik diot hori guztia? Alde bate-tik, aurrekontu publikoen sarrerak eten-gabe murrizten ari dira, batik bat goi mailako diru sarrerak arinago zerga-petzen direlako eta erdi mailako klasea desagertzear dagoelako. Horri guztiari erantsi behar diogu enpresa erraldoiek apenas ordaintzen duten zerga esanguratsurik. Beraz, oinarritzko zerbitzu publikoak eskaintzeko nahiko baliabiderik gabe geratzen ari dira erakunde publikoak. Are, sarrera publikoak ez dira igoko BPGren portzentajearen tamainan.

Gastu publikoei dagokienez, laurogei-ko hamarkadan hasi ziren murrizten edo partidak berrikusten, eta okertu ziren 2008an finantza krisia zela eta. Krisialdi horren errudunak, finantza erakundeak (bankuak eta aurrezki kutxak), erreskatatu behar ziren diru publikoarekin, baina kudeatzaile errudunak beraien aulkietatik mugitu gabe.

Krisi egoera horretatik irtete aldera, estatuak zorpetu ziren finantza erakundeei dirua maileguan uzteko, mailegu

Sánchezek ere argi dauka defentsa gastuak BPGren %5era heltzeak ongizate estatua desagertzea ekarriko lukeela eta, ondorioz, AEBetako eredura joango ginатеkeela

horiek inoiz osoki itzultzeko asmorik gabe izan arren; Espainiako Estatuan, adibidez, maileguen kopurua 66 mila milioi eurokoa izan zen, baina 23 mila milioi euro bakarrik berreskuratu zituen gobernu zentralak. Gainontzeko 43 mila milioi euroak estatuak bere gain hartu zituen, beste erremediorik gabe, eta ondorioz zor publikoa areagotu zitzaigun.

Zor publiko horregatik, estatuak finantza erakundeei, atzerrikoei barne, urteko interesetan 31-38 mila milioi euro ordaintzen dizkie, BPGren %2,4; horrezaz gain, finantza erakunde horiek, aipatu dirutza hori kobratzeko lehen-tasuna daukate Konstituzioaren 135. artikulua erreformatuaren arabera. Begi bistakoa da aurrekontuetatik kopuru andana eramaten dutela finantza erakundeek eta ongizateko gastu partidek

nozitzen dute. Nolabait, finantza erakundeek BPGren zati oparoa eramaten digute erakunde publikoetatik.

Aurrekontu publikoen huste horretan beste urrats bat emango da gastu militarren hazkundea gauzatzen bada. Izan ere, Trumpek bere lehen agintaldian Europako NATOko kideei jakinarazi zien gastu militarra BPGren %1etik %2ra igo behar zutela. Orain, Errusiaren mehatxua delakoaren aitzakiarekin, beldurra sartu nahi digute, eta gure burua ganoraz defendatze aldera, gastu militarrek BPGren %5era igo behar ditugu: AEBetako enpresa militarrei erosita.

Haatik, gastu militar horiei eransten badiegu finantza erakundeei ordaindu beharreko %2,4, %7raino helduko dira aurrekontu publikoetatik joango zaizkigun funtsak, eta eragin zuzena izango dute hezkuntza, osasungintza, etxebizitzatza, garraio, ikerkuntza eta zaintza partidetan. Eta Hego Euskal Herriak kupo handiagoa ordaindu beharko dio gobernu zentralari. Azken finean, desagertzear geratuko zaigu ongizate estatua, gorago aipatu gisa, sarrera publikoak ez baitira haziko.

Beraz, Pedro Sánchez presidentek ere argi dauka defentsa gastuak BPGren %5era heltzeak ongizate estatua desagertzea ekarriko lukeela eta, ondorioz, AEBetako eredura joango ginатеkeela, non ongizate estatua ez den apenas existitzen eta dirudunek bakarrik izango duten aukera zerbitzu publiko oro eskuratzeko. ●

Ederki galdua



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA

Nunquam polluta dio Baionako lemak, erran nahi baitu "sekulan zikindu gabea" edo "sekulan hartu gabea", eta erreferentzia egiten die inbasio saiakera historikoei, espainiarren-gandiko, frantsesengandiko eta ingelesengandiko saiakerak ez omen baitziren emankorrak izan, eta ezin izan omen baitzuten Baiona konkistatu. Baliteke hala izatea, baliteke mitoa izatea. Baina iraganeko zintzotasun horrek gutxi du ikustekorik gaur egungo egoerarekin.

Bego horretan Historia, gaurkotasunera heltzeko. Baionako besten atarian gaude, lehertzear dira –erabili espresioen artean, hala erraiten baita, bestak "lehertzen" direla–. Bost egun eta gau iraganen dira jende olde gaitzaren meneko. Segur aski Euskal Herriko beste zenbait lekutan bezala, *ez-lekua* bihurtuko da, norbanakoa desagertzen den espazio lauso eta masa-oihartzun bihurturiko horietako bat.

Azken urteetan, Baionako besten aipamenak gertatzen direnean, sobera usu gertakari latzak aipatzen dira: ebasaketak, borrokak, bortxaketak, hilketak, gehiegikeriak. Giroa jasangarriago bilakatzeko asmotan, beste buruz gogoeatzeko eta neurriak hartzeko taldeak bildu izan dira, hiritar eta hautetsiak bilduz, batzuetan elkarrekin eta beste batzuetan bereiz: guztien interesak ez du bakoitzarenarekin errazki bat egiten. Datak aldatu dira. Ordutegiak eta

eremuak birfinkatu dira. Seguritatea indartu da. Hiriarren garbiketa langile taldea indartu da. Bizkitartean, hainbaten ikuspegitik, bestek jasangaitzak izaten jarraitzen dute.

Baiona festa bat da, baina ez denen ustez. Eta gaiari buruz hautetsi eta komertsantak entzuten badira ere, gutxiagotan entzuten da baiones soilen ahotsa. Horien kasuan, kontua idekitze eguna baino astebete lehenago hasten da eta beste bi aste berantago bukatzen. Hau da: hogeie eguneko kontu dorpea da. Izan ere, herriko zerbitzuak orduan hasten dira herria hesiz inguratzen eta aparkalekuetako araudiak moldatzen. Orduan ere, ostatu eta jatetxe guztiak hasten dira bazterrak prestatzen: barrak instalatzen, edari eta hornigaiak apailatzen. Hainbat komertzio ere, gisa bera, aitzineko asteburuan berean hasiko dira saltegiak babesten eta hesten.

Baionesek ez dute, hortik goiti, leku gutxi baizik, eta urte osoan hainbat komertzio biziarratzen badituzte ere, upel meten artean, ulertzen dute jada ez direla hain premiazkoak, eta kafe hartzeko hobe dutela ondoko herriraino pusatzea. Urtero, anitz dira Baionako

bestetan hiritik ihes egiten dutenak "kanpotarrak" joanen diren arte. Izan ere, masak datoz eta haiekin batera, bost egunez goitikina eta pisa karrikan gairi, hondarkinak Errobira besagainka, frijitu usain pisua, karrikako airea saturatuko duen izerdi urrina eta prezio politika beldurgarria. Ezaguna baita: Baionako besta "onak" egiten dituenak, urte osoko zenbakiak salbatzen dituela.

Baionatik eskapatzea lortuko ez duenak, pairatu beharko du ere pesta eredu dekadentea eta errespetu gutxikoa, eta ondoko astean, ohiko lekuak zerraturik kausituko ditu, opor egun batzuk merezi direla-eta.

Baionesen iritziaz arranguratu gabe eta, gainera, haiek ordaindu zerga sariarekin antolatzen da hori dena, eta eragin kalteen konpontzea ere bide beretik. Hiriko arduradunak atorra *txurri* birjinal ontsa lisatuak soinean agertuko dira seigarren egunean, espantatzeko zein gauza ederra (izan) den. Ostalariek, haien miseriaz negarrez, lanbidearen zailtasunak aipatuko dute, etekina ez aipatzearren.

Ez dira bost, hogeie egun luze dira. *Polluta*, erabat. ●



MAIDER LETURIAGA

Ikastetxean, taldearen jakituria



HIRUKI LARROXA

Ikastetxeetako ikasgelak, tamalez, espazio gatazkatsuak izaten dira askotan eta, gatazka gehienetan gertatzen den moduan, emozio intentsuak eta minak izaten dira. 2022an, ikastetxeetan aritzen diren beste eragile batzuekin batera, azken urteetan ikasgela askotan bizirik dagoen gatazka baten inguruko hausnarketa-prozesu bat abiatu genuen. Alegia, "Mutil Gazteekin Feminismotik Esku Hartzen" prozesua, gehienbat mutilen artean (eta irakasleen artean) nahiko presente dagoen jarrera antifeminista eta horren ondoriozko polarizazioa lantzeko.

Ordutik, hausnartzen eta estrategiak pentsatzen aritu gara. Eta azken urteetako barne zein kanpo hausnarketetatik, hezkuntza formal zein ez-formalean parekidetasunaren gaia (baita bestelako gatazka soziopolitikoak ere) lantzeko estrategia aldaketaren aurrean gaudela ondorioztatu dugu. Esku hartze estrategia horien nolakotasun eta zehaztasunak ez dira iritzi-artikulu honetan sartzen. Baina utziguzue begirada aldaketa eta tresna batzuk zuekin partekatzen.

Lehenik eta behin, Talde Fazilitazioaren markoa zaigu zinez interesgarria eta erabilgarria. Izan ere, marko horrek ikastaldeetan gertatzen diren momentu gorenak (akusazioak, emozio indartsuak...) taldeko sistemaren parte

moduan ulertzera eramaten gaitu. Eta, ondorioz, aipatu gatazkan ageri diren rol erreakzionario horiek taldearen parte diren heinean, horiek sakonago ulertze-
ra (eta ez isilaraztera edo zentsuratzera) eramaten gaitu. Areago, Talde Fazilitazioak ikastaldeetan gertatzen diren zenbait dinamika (adib., botere harremanak) sakonago ulertzeko tresnak ere ematen dizkigu.

Bestetik, begirada errestauratiboa izango genuke; taldeetan gertatzen diren minen lehengoratzeko eta harremanen eraldaketarako bideak errazten dizkiguna. Egon daiteke begirada edo kultura hori epeltasunean (<3 Nakar) edo erlatibismoan kokatzen duenik, baina posizio "neutral" horretatik urrun dago begirada hori.

Izan ere, gatazka bateko minen sortzaile diren zapalkuntza dinamiken aurrean, posizionamendu argi bat dakar; mina artatuta eta mina eragin duenari ardura eskatuta. Horrela, ardura kolektiboari ere garrantzia ematen zaio eta, ezinbestean, min individual zein kolektiboa lehengoratzeko kolektiboki lan egiten da; komunitatean kultura eraldaketarako oinarriak ezartzen ditu.

Guk, hemendik aurrera, ikastetxeetan eta hezkuntza ez-formaleko espazioetan gertatzen diren gatazketan esku hartzeari ekingo diogu: taldearen zauri, indar, jakituria eta ardurei tokia emanez. ●

"Azpian lur hotza"

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Azken asteko sapa lehergarri egunetan gure zereginen egitarauak aldatu beharrean aurkitu gara. Freskura erlatibo batek seietan atera gaitu ohetik, gosaldutik eta lan gehienak bederatzietarako plegatu ditugu eta hamarretan jalgi gara oinezko ibilaldia egitera. Eta ez ginen bakarrak karriketan eta ibai hegietan zanpa-zanpa joanki.

Aspaldian aipatu aldaketa klimatikoaren zantzuak materializatzen ari direlako sentsazioa daukagu, hor dago mamua, beldurtzen gintuen muga, nahiz eta ongi dakigun ez garela batere prest kanbiamendu horri buru egiteko.

Egia da, halaber, egitura mediatiko osoa sartua dela egoera klimatikoaren ukatzeko halako logika morbido batean, betiere, segur delako jende xeheak eta geriza gabeak dituela zakur-beroaren ondorioak pairatuko.

Termometroak berrogei gradu hurbil markatzen dituelarik, etsipen moduko zerbaitek hormatzen gaitu: ez dugu deus egiten ahal, asumitu behar dugu, egokitu ala hil. Europa mailan, jadanik, kasik berrehun mila jende hiltzen da beroagatik.

Egia da "lur hotzaren" azpian freskoago egiten duela... ●

Nobelak idazteko artea



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Atzo jakin dut euskal prentsatik Jean Reno aktoreak lehen nobela idatzi duela. Berri hori euskaraz jasotzeak *munduko hiritar* edo *paleta global* bihurtzen ote nauen oso ongi jakin gabe, nobelak idazteko arteaz egin dut gogoeta.

Tokitan dago “nobelaren heriotza” aldarrikatzen zen garaia. “Nobela konbentzionala ireki, berritu eta beste errealitate batzuetara zabaldu” nahi omen zuten nobela abangoardisten denbora, Cortazarren *Rayuelak* sinbolizatzen ahal duena, beste hainbat idazle –Butor, Nathalie Sarraute eta *Nouveau Romaneko* guztiak, OULIPOkoak, Italo Calvino ere barne, Onetti hegoamerikarra...– ahaztu gabe. Jarraibide eskuliburuarekin irakurri beharreko nobelak. Utikan. Vazquez Montalbanek, “idazki subnormal” deitzen zien hainbat pieza abangoardistaren egileak, aspaldi gaztigatu zuen: “Nobelaren hilotzarekin borrokan ibili ginen hainbat urtez, hildako hark osasun ona zeukala ikasi genuen arte”.

Renok, aldiz, irakurri dudanaren araber, Victor Hugok bezala edo are Cervantesek bezala idatzi nahi omen du. Asmo

Irakurle batzuek nobela 'klasikoari' ohi dagokion ahalegin konposatzaile hori maite dugu, eta halakorik gabeko produkturik ez dugu nobelatzen hartzen

txalogarria, zinez, eta *Les Visiteurs* filma protagonizatu zuen aktorearen mailakoa, inondik ere, film hartan erdi aroko zaldun baten papera jokatzeko zuten.

Nobela bat zer den inork ez daki. Bego Celaren definizioa behin betikotzat: “Nobela da liburuaren azalean nobela dela esaten duen edozer”. Abangoardiaren izenean *bodrioak* eta maisu-lanak egin izan diren bezala, nobela, esan dezagun, *klasikoaren* etiketapean kalitatearen aldetik denetariko produktuak pasarazi nahi izan dizkigute. Inon ez dago idatzita idazle batek nahitaez nobela bat idatzi

behar duenik. Eta nobela bat idatzi duen idazleak, berak jakingo du zergatik idatzi duen; ez da izango, baina, inork behartu duelako. Zergatik hainbeste enpeinu, ordea, “hau nobela bat da” esateko?

Demagun nobela bat idaztea etxe bat eraikitzea bezalakoa dela. Zimendu sendoak beharko ditu, orientazio ona, zulorik gabeko teilatua eta, zorte pixka batekin, edergarriren bat ere bai. Baina horiek denak bezain garrantzizkoak –nahiz eta ez hain luzituak– ditu saneamenduak eta isolatzaileak. Finean, etxe bat eraikitzea konposizio orokor bat da. Nobela ere berdin. Konposizio bat da, zimendua eta orientazioa bezain garrantzizkoak isolatzailea eta saneamendua dituen. Are, batzuetan, etxegilearen –nobelagilearen– trebezia elementu horiek ibiltzeko maneran ikusten da (“arte” esan dugu, baina benetan “artisautza” behar luke). Ez dakit lortu dudan: esan nahi izan dut irakurle batzuek nobela *klasikoari* ohi dagokion ahalegin konposatzaile hori maite dugula, eta halakorik gabeko produkturik –oso onak izaten ahal badira ere– ez dugula nobelatzen hartzen, azalak dioena dioela. ●

Erraldioen ipuinak

12€

12€

Bi liburuak batera erosita 22€

Hezkuntzaz gogoetak

14€

16€

Bi liburuak batera erosita 28€

Babestu euskal kazetaritza independentea

Prezio
finkorik gabe.

Ordaindu
nahi duzuna.

Egin ARGIAkoa

www.argia.eus/eginargiakoa



* Argazki oin guztiak Alfons Rodriguezenak dira.

GENOZIDIOAK 30 URTE

Srebrenica: ez aitorpenik, ez barkamen eskerik

1995a zen. Tolerantziarako Nazio Batuen Urtea. Errespetua, onarpena, eta kultura, sinesmen eta komunitateen arteko bizikidetza baketsua aurreikusi zituen NBEk urte horretarako. Baina, II. Mundu Gerrako amaieraren 50. urteurrena ospatzen ari zirenean, Europa beste genozidio baten ateetan zegoen. Bosnia, Europaren bihotzean, odolusten ari zen, eta gerra horren sinbolo bilakatu zen Srebrenicako kokalekua, merezimendu osoz: 1995eko uztailen 8.000 bosniar musulman baino gehiago hil zituzten. Orain 30 urte.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE  ALFONS RODRIGUEZ



Urtero errepikatzen da irudi lazgarri hau: dozenaka hilkutxa bata bestearen ondoan, gertaerak izan ziren lekuan, lurperatu aurretik. Urte horretan identifikatutako gorpuzkiak daude barruan. 2010eko uztailako argazkia.



Hildakoen milaka hilobik osatzen dute Potočari-ko memoria hilerria, Srebrenicatik kilometro gutxira. 2010eko uztailako argazkia.

Anaitasuna eta Bakea aldarrikatzen zituen Yugoslaviatik zetozen bosniarrak, eta inon zentzurik bazuen, hain zuzen ere, Bosnia eta Herzegovinan zen. Sinesmen, komunitate eta etnia desberdinen batura lortu zuen Josip Broz Tito Yugoslaviako presidenteari, eta herrialde osoaren ispilu zen Bosnia eta Herzegovina, *Yugoslavia txikia* ere esaten zioten. Izan ere, gainontzeko herrialdeak monoetnikoagoak baziren ere, Bosnian hiru etnia nagusiak elkarrekin bizi ziren: %43,7 ziren bosniakak –bosniar musulmanak–, %31,3 bosniar serbiarrak –kristau ortodoxoak– eta %17,3 bosniar kroaziarrak –kristau katolikoak–. Bizikidetzatza izan zuten urte luzetan, baina barne krisiek haustura sortu zuten, eta nazionalismoek gora egitearekin bat heldu zen gerra.

Testuinguru horretan, Srebrenica kokaleku berezia zen. Serbiako mugatik

hurbil, eta gehiengo serbiarra zegoen eremuan zegoen: hiria, ordea, gehiengo bosniakakoa zen. Horrela, inguruko herri bosniakak serbiarren esku geratzen joan ziren heinean, Srebrenicara ihes egin zuten bertako biztanleak. NBEk esku hartu eta gune seguruak ezarri zituen, eta Srebrenica zen horietako bat; Sarajevo zen beste bat, zeina setiopean zegoen 1992tik. 1993a zen.

NBERen erabaki horrek eragin zuen Srebrenicara errefuxiatuak zientoka hiltzea; 1993 eta 1995 arteko biztanleria datuek 40.000 pertsonatik gora kontatu zituzten hirian, bertako ohiko biztanleriaren laukoitza inguru. Errefuxiatuekin batera heldu ziren NBERen Bake Indarrak, *kasko urdinak*; lehenengo kanadarrak, eta 1994tik aurrera, herbeheretarrek. Baina soldaduak helduagatik ere, ez zuten izaera militarreko disuasio elementurik ezarri; are, eskatutako solda-

duen laurdena ere ez zituzten bidali, eta bakarrik “beren buruaren defentsan” egin zezaketen tiro, ez zibilen defentsan. Kokalekuak iraun zuen bitartean, bizi baldintza kaskarretan izan ziren errefuxiatuak, laguntza humanitarioaren etengabeko mozketekin: 1995eko uztailaren 8ko komunikazio batean, Bosniako Armadako Estatu Nagusiko buruak abisua eman zuen hirian zortzi pertsona gosez hil zirela.

UZTAILAREN 11

“Ziurgabetasun sentsazioa sortu behar da Srebrenicako biztanleen artean, hainbeste, ezen bizirauteko esperantzarik ere izango ez duten”, Radovan Karadžić Bosniako Serbiar Errepublikako –Bosnia eta Herzegovina barruko entitate serbiar autonomoa– presidenteari eman zuen agindua, 1995eko martxoan. Handik lau hilabetera, uztailan, hiria in-



Sarraskiko biktimen abizenak, Potočariko hilerri memorialean. 2015eko uztailako argazkia.

guratzen ari ziren Bosniako Serbiako Errepublikako Armadako tropak, Ratko Mladić *Srebrenicako harakina* buru. *Kasko urdin* herbeheretarrek “tiro bakar bat” ere ez zuten bota armada serbiarren aurka, Srebrenicako iturriek esandakoaren arabera. Gerora egin dituzten adierazpenetan, soldaduek adierazi izan dute bi agindu zituztela: errefuxiatuak defendatzea, baina gorpu bakar bat ere ez eramatea Herbehereetara. Alegia, serbiarrei ez oldartzea. Egiari zor, tropa herbeheretarren koronelak errefortzuak eskatu zizkion NATOri behin baino gehiagotan, baina hark ukatu egin zituen eskaerak, eta heldu zirenerako berandu zen.

Uztailaren 11n hiria serbiarren eskuetan geratu zen, eta bertan ziren errefuxiatuek *kasko urdinen* kuartelera egin zuten ihes: fabrika zahar bat zen kuartela, Potočari-n, Srebrenicatik bost

kilometrora. 25.000 pertsona inguru izan zirela diote datuek, gehientsuenak emakumeak eta umeak; kuartelean, ordea, 5.000 lagunentzako lekua zegoen bakarrik, eta gainontzekoek inguruko fabriketan hartu zuten babes. Beste 15.000 zibilek, gizonak denak, mendietan zehar egin zuten alde, eremu seguru baten bila.

“Hemen gaude, 1995eko uztailaren 11n, Srebrenica serbiarrean, serbiarren egun handi baten bezperan. Hiri hau ematen diogu nazio serbiarrari, turkiarren aurkako altxamendua gogoan. Musulmanei mendeku hartzeko momentua heldu da”, esan zien Mladićek berarekin Srebrenicara eraman zituen kamerei, eta horri ekin zion. *Kasko urdinak* errendituta, kuartelean zeuden emakume eta umei ebakuazioa hitz eman zien Mladićek, eta horrela hasi ziren hamai-ka autobusetan emakumeak eta umeak

sartzen. Guztia errebisatu zuten gizonik sartzen ez zela ziurtatzeko, eta zeude-nak autobusetik jaitsarazten zituzten.

Momentu horretatik aurrera hasi zen sarraskia. Lekuko ugarik kontatu dute kuartelaren inguruetan bertan ikusi zituztela exekuzioak, emakume zein gizonak hil zituzten. Mendietan ihesean zeuden gizonak ere patu bera izan zuten. Radislav Krstić-ek, Mladićen eskuin eskuak, ihesean zihoazen zutabeak begiztatu zituen, eta irratiz agindu argia eman zien bere soldaduei: “Hil itzazue, ez dugu inor behar bizirik”.

1995eko uztail hartan 8.000 bosniaketik gora hil zituzten, egun gutxian, serbiarrek. Hildako kopurua ez da zehatz, orain artean lortu den zehatzena da 8.372, baina horien guztien gorpuak ez dira aurkitu, askok desagertuta jarraitzen dute. Izan ere, hobi komunetan agertu ziren gorpu horiek, deseginda

eta gorputz atalak hodi desberdinetan banatuta. Hainbeste, ezen, 30 urte beranduago, oraindik beren kideak aurkitu ez dituzten bosniakak dauden.

JUSTIZIA

Genozidio hartatik hiru hamarkadatar, ezer ez da berdin Srebrenican. Iaz onartu zuen NBEk uztailaren 11 Srebrenicako genozidioa gogorarazteko eta horretaz gogoeta egiteko egun gisa. Genozidioaren arduradunak ere epailearen aurretik pasatu ziren, Nazioarteko Zigor Auzitegitik, eta genozidioagatik eta gerra krimenengatik epaitu zituzten. Karadžić presidenteari eta Mladić militarari bizi osoko kartzela zigorra ezarri zieten, ihesean egon eta gero atxilotu zituztenean. Armadako beste zenbait karguri ere zigor luzeak jarri zizkieten; Krstići, ihesean zihoazenak hiltzeko agindua eman zuenari, 37 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, eman zuen agindua grabatuta geratu baitzen eta hori izan zuten frogak.

2019an Herbehereetako
Auzitegi Gorenak onartu
zuen Herbehereek
erantzukizuna zutela
Srebrenica gune seguru
ez mantentzearena, baina
“oso murrizta”

Gauzak aldatu dira, beraz, baina ez dezentzat. Arduradunak epaitu badituzte ere, eta nazioartean errekonozimendua aitortu bazaio ere, biktimek oraindik ez dituzte arduradun guztiak epaiketan ikusi. Eta justizia osoaren aldeko mugimenduan, Srebrenicako Amek egin dute bultzatza handiena. Mundu osoan egin ziren ezagun, beren koloredun zapiekin, eta Argentinako Maiatzeko plazako

amen antzera, arduradunei erantzukizuna eskatzen zietelako. 2002an eratu zen taldea, Herbehereetan, eta harrezkero Srebrenicako genozidioan familiako kideak galdu dituztenen justizia ibilbidea lagundu dute, baita gorpuen bilaketan ere. Zentzu horretan, ICMP Desagertutako Pertsonen Nazioarteko Komisioak ere lan handia egin du, DNA datu base bat sortu baitzuen gorpuzkien identifikaziorako, eta 90.000 lagin jaso zituzten bertan.

Srebrenicako Amen kasu ezagunena izan zen Herbehereetako Gobernuaren aurka aurkeztu zutena. Izan ere, salatu zuten NBEk eta Herbehereek ez zutela beren betebeharrak bete, Srebrenica eremu seguru mantentzea, alegia. 2014ko erreklamazioa onartu zion epaimahaiak, eta 2019an eman zuen epaia Herbehereetako Auzitegi Gorenak. Onartu zuen Herbehereek erantzukizuna zutela, baina erantzukizun “oso murrizta”: *kasko urdinen* kuartaletik bota zituzten 350 gizonen heriotzaren erantzule ziren soilik, %10eko posibilitatea baitzuten serbia-



Lanak ez dute etenik. Denbora pasatu izanagatik ere, hobi komunak bilaketa lanek jarraitzen dute. Hobiak bilatu, gorpuk desobiratu eta identifikatzen dituzte urtero. Oraindik milaka biktimak daude identifikatu eta lurperatzeko. 2010eko uztailako argazkia.



Marš mira (Bakearen aldeko martxa) egiten dute urtero, eta milaka gizonek Srebrenicatik ihesi egin zuten ibilbidea egiten dute. Ihes egin zuten ia guztiak sarraskitu zituzten soldadu serbiarrek. 2010eko uztailako argazkia.

rreren eskuetan ez erortzeko. Epaia ez zitzaizen nahikoa iritzi Srebrenicako amei: “Inoiz ez dugu ahaztuko gertatutakoa eta inoiz ez ditugu Herbehereak barkatuko”, adierazi zuen epaia jaso berritan Munira Subašić bozeramaileak.

Kasu horren aurrekaria izan zen 2011ko Hasan Nuhanović-ena. Hagan, Nazioarteko Zigor Auzitegian, onartu zuten Nuhanovićen eta beste bi bosniaken familiakideak tropa serbiarrei entregatu zizkietela, eta hori gaitzetsi zuen. Sententziak azpimarratu zuen hiru kideen kasua “berezia” zela, ez zela genozidioko gainontzeko biktimen egoera bera, baina hala ere, sententzia historikotzat jo zuten garaian.

Gaia bereziki mingarria bihurtu zen Herbehereetan, nazioarteko foku guztiak euren gainean sentitu zituzten genozidioaren ostean. 2022an Mark Rutte lehen ministroak barkamena eskatu zien Srebrenican izan ziren *kasko urdin* herbeheretarrei, “ezinezko misio” bate-

2024an NBEk ohartarazi zuen Srebrenicako genozidioa gauzatu zuten gerra kriminalak goraipatu zituztela Bosniako Serbiar Errepublikaren egun nazionalean

ra bidali zituztelako, eta gerora babesik eskaini ez zietela onartu zuen.

OROIMEN HISTORIKOA

8.000tik gora bosniak hil edo desagerrarazi zituzten 1995eko hartan, zenbait zenbaketa 10.000raino ere heldu dira. Baina zenbaki osoak izanagatik

ere, gorpu horiek ez dira agertu. Izan ere, Daytongo bake akordioak sinatu eta gero, 1995eko abenduan, hildako eta desagertu guztiak bilatzeari ekin zioten, hamaika hilobi komunetan banatuta. Lana ez zen eta ez da erraza, gorpuak zatituta eta leku askotan sakabanatuta baitaude, eta zenbait nazioarteko erakundek ohartarazi zuten zenbait militar serbiarrek hilobiak nahastu zituztela, ikerketak oztopatzeko.

2003an zabaldu zuten Potočariko Memoria Zentroa, *kasko urdinen* kuarteraren inguruan bertan, hor hasi baitzen dena. Zentroa zabaltzearekin batera, identifikatu zituzten lehen 603 biktimen hileta egin zuten. Eta harrezkero, 6.765 biktimari eman diete lur, urtero zentroan egiten duten omenaldian: uztailearen 11ko urteurrenean.

Lehen hileta hartaz gero, urtero egiten dute zeremonia Potočariko hilerrian. Urtean zehar aurkitutako gorpuzkiak desobiratu, eta identifikatzea lortzen badute,

uztailaren 11n hartzen dute lur, milaka lagunuen begien parean; tartean, bizirik badaude, beren familia eta lagunak.

BOSNIA, ZATITUTA

Amaitu zen gerra, hasi ziren prozesu judizialak eta memoriari begirakoak, baina Bosniak eta Srebrenicak aurrera egin behar zuten. Aurrera egin behar zuten herrialde ofizialki zatitu batean. Izan ere, Daytongo bake akordioek ofizialki onartu zuten Bosniako Serbiar Errepublikak, Bosnia barruko entitate autonomo serbiarra estatuaren lurraldearen erdia ingururekin, eta harrezkero hiru zati zituen herrialde bilakatu zen: hiru presidente, hiru hezkuntza sistema, hiru eredu etniko bateraezin. Baina batera bizitzera kondenatuta.

Etnien arteko bizikidetzak behera egin zuen nabarmen, bakoitza bere eremura mugatuta. Horren adibide nagusia

da Sarajevo. Gerra aurreko garaietan hiru etnia nagusien arteko oreka mantentzen zuen hiriak: bosniakak erdia inguru ziren, %38 serbiarrak eta %7 kroaziarrak. Gerraren ondoren, aldiz, hiria ia bere osotasunean bihurtu da bosniaka, %77 dira; %3 serbiarrak eta %5 kroaziarrak. Aipagarria da serbiarren behar-rakada hiriburuan, batez ere, kontuan hartuta Bosniako Serbiar Errepublikako konstituzioak Sarajevo aitortzen duela bere hiriburu gisa, *de facto* Banja Luka bada ere.

Egoera bertsuan geratu zen Srebrenica ere, Bosniako Serbiar Errepublikaren mugen barruan, eta genozidioaren ostean eraketa etnikoa guztiz aldatuta. Gehiengo izatetik gutxiengora pasatu ziren Srebrenican, hildako jende guztiaz gain bosniak askok alde egin zutelako serbiarren eskuetan geratu ziren lurretatik. Eta Srebrenicara bertara zenbai-

tek itzultzea erabaki bazuten ere –eta horretan lan handia egin zuten elkarte memorialistek– gutxiengo izaten jarraitzen dute.

SERBIAN AITORTZARIK EZ

NBEk 2024ko urtarrilean egindako ohar-tarazpen batek alarmak piztu zituen. Genozidioa Saihesteko Aholkulariak, Alice Wairimu Nderitu-k, ohartarazi zuen Srebrenicako genozidioa gauzatu zuten gerra kriminalak goraipatu zituztela Bosnian. Bosniako Serbiar Errepublikaren egun nazionalaren barruan izan ziren gertakizunok. Wairimuk adierazi zuen: “Genozidioa etengabe ezeztatzea eta arduradunak goraipatzea kezkarria da, eta eskualdean bakea eta elkarbizitza oztopatzen jarraitzen du”.

Izan ere, Serbian Srebrenicako genozidioaren gaiak hautsak harrotzen ditu. Hain zuzen ere, erreportajearen



Denbora pasatu da, baina Srebrenican gerraren lorratza handia da. Giro bortitza nabaritzen da hiriko txoko askotan. 2010eko uztaileko argazkia.



Serbiako eskuin muturraren protesta bat, Srebrenicako genozidioa ukatzen, Belgradon. Afixan "egia" irakurtzen da. 2010eko uztaileko argazkia.

hasieran aipatu moduan, 2024an onartu zuten NBEko estatu kideek uztailearen 11 izango zela Srebrenicako genozidioa gogorarazteko eguna. Alemania eta Ruandak eraman zuten gaia bozketara, eta erresoluzioan serbiarrak eta beren errua aipatzen ez baziren ere, ezezko botoa eman zuten Serbiak, eta horren aldeko presioa egin zien gainontzeko estatuei ere. Are, bozketa gauzatu bezperan Milorad Dodik-ek, Bosniako Serbiar Errepublikako presidentea, mehatxu egin zuen entitate autonomoa Bosnia eta Herzegovinako lurraldetik bereiziko zuela.

Aurten ere izan da alarmarik, martxoaren 7an Srebrenicako Memoria Zentroaren albiste batek piztu zuen:

zentroa itxi behar izan zuten, "segurtasun faltagatik". Horren arrazoia izan zen Bosniako Serbiar Errepublikak Bosniako Polizia eta Justizia departamentuak bota zituela bere lurralde osotik, Srebrenica barne. Beraz, zentroa ixteko erabakia hartu zuen antolakuntzak, "langileei, bazkideei, gonbidatuei eta bisitariei behar besteko segurtasun neurriak" eskaini ezin zizkiotelako.

Bosnian debekatuta dago, lege, genozidioa ukatzea, 2021eko lege batek zehazten duenez: sei hilabete eta bost urte arteko kartzela zigorrak aurreikusten ditu legeak genozidioa ukatu edo sarraskia justifikatzen dutenentzat. Lege hori Bosniara bidalitako na-

zioarteko goi ordezkariak ezarri zuen, eta serbiarren ez zuen erantzun onik izan. Are, legea onartu berritan, Bosniako Serbiar Errepublikako Parlamentuan beste lege bat onartu zuten, Srebrenicakoa genozidio gisa errekonozitzea eragozteko.

Egoera horretan, urtero egiten dute genozidioa ukatzeagatik delituen kontaketa, eta kopuruak azken urteetan behera egin badu ere, urtero dauka ehunka lege hauste. Hori horrela, 2024an egindako adierazpenetan, hurrengo ohartarazpena egin zuen Wairimuk: "Iragana onartu eta genozidioa eta bere ondorio lazgarriak aitortzen ez dituzten gizarteek arriskua dute krimen horiek berriro gertatzekoa". ●

“ ”

Sinesgaitza da pentsatzea datozen belaunaldiek berriro borrokatu beharko dutela lortutako eskubideen alde

Mocchi

Maiatzean Mocchi abeslari uruguaitarrak *El frío que nos convoca* [Batzen gaituen hotza], 2024 amaieran plazaratutako diskoa aurkeztu zuen Euskal Herrian, Abian Kultur Elkartearen (Algorta, Getxo). "Eskerrak elkarrekin gauden" [*Menos mal que estamos juntas*] abestuz eman zion hasiera kontzertuari eta ia bi orduz nor den kontatu zigun bere abestien eta horien atzean dauden pasadizo eta istorioen bidez.

 GARAZI BASTERRETXEA BAREA  PELLO MAUDO / ARGIA CC BY-SA

Kontzertuko bi orduetan, lurrean gero eta aulki eta kuxin gehiago jarri behar izan zituzten antolatzaileek, topaketara iristen ari zen jende andanari leku egiteko. Beroaren ondorioz, leihoak zabalik amaitu zen kontzertua, guztiok batera *loop*-ean (buklean) abestuz herrien memoria gogoratzeaz eta partekatzeaz hitz egiten duen abestia. "Mocchi musikaren bidezko proiektu politikoa da", azaldu zuen: "Giza loturak sendotu nahi dituen proiektu politikoa, mundua gure eguneroko keinu bakoitzarekin aldatzeko". Batzen gaituen hotza elkarrekin epeltzea helburu duen proiektu politikoa.

Nola sortu zen azken diskoa?

Oso modu berezkoan sortu zen. Eskuinaren aurrerapena eta Argentinako Mileiren onarpena prozesatzen ari nintzen [Buenos Airesen bizi da Mocchi orain], eta sentitzen nuen ez zegoela leku erosorik, aldi berean Uruguain Lacalle Pouk gobernatzen zuelako, eskuinekoa bera ere. Toki bakoitzeko nortasun politikoak besarkatu edo baztertu egiten zaitu. Baina parte ez sentitzeak beste gauza askoren parte sentiarazten zaitu, edo espazioak eraikitzeak aukera ematen dizu. *El frío que nos convoca* lanean, bilduko gaituen sua izango den abesti multzo bat sortzea nahi nuen, gertatzen ari diren

eta muturreko hoztasuna duten gauza horiei beste leku batetik behatzeko.

Zer leku izan zuen *Compostaje* [Konpostatze] abestiak diskoa grabatzea erabakitzerakoan?

Argentinako hegoaldean geunden eta egin berri nituen kanta batzuekin disko bat grabatzeko gogoia etorri zitzaidan. Grabatzeko leku bat lortu genuen herri batzuk beherago, eta joan egin ginen. Gau hartan Barracaseko lesbizidio beldurgarriaren berri jaso genuen: gizon bati bururatu zitzaion lau lesbianek lo egiten zuten ostatu bateko gela batean molotov bonba bat botatzea. Hiru hil zi-



"Nire ustez, batzuetan munduaren aldaketa gauza txikietan dago: hor egotea eta norbaitek behar zaituenean erantzutea, edo esatea 'asteazkenetan Buenos Airesen jubilatua jotzen ari dira, zer egin dezaket?'".

ren. Berria iritsi zitzaidan eta isilik geratu nintzen. Horrelako gauzak jada ez dira kasu isolatuak, gobernatzen duenaren ahotan daude gorroto diskurtsoak, eskubideak eta segurtasuna bermatu behar dizkigunaren ahotan, hain zuzen ere. Oso gaizki sentitu nintzen eta gelditu gabe idazten hasi nintzen: *Compostaje* kanta sortu nuen eta egun horretan bertan grabatu nuen. Disko osoa hain arin egiteko pizgarria izan zen; "esan behar dut" pentsatu nuen. Mezua batzuetan

premiazko bihurtzen da eta irten behar da.

1990 diskoan zure belaunaldia erretratatu zenuen. Ze ezaugarri izan zituen belaunaldi horrek Uruguain?

1990eko belaunaldiak, Rio de la Platan, hainbat krisialdi igaro genituen: 90eko hamarkadakoa, 2001ekoa, eta orain hau. Hamaika urte nituenean, amak gauera arte lan egiten zuen eta aitak kanpoan. Bakarrik bizi nintzen, ama lotan baino ez

“ ”

Ziur lehen belaunaldia izan ginela kalean musukatzen arriskurik sentitu gabe, eta botikan erositako porroa erretzen

nuen ikusten. Nire lagun gehienak berdin bizi ziren, ez zen kasu arraroa. Horri zor dizkiodan gauza asko daude, baita ez jakitea nahiago nukeen gauza asko ere. Nire obra horretaz blaituta dago, batez ere disko horretan, non asko hitz egiten dudan nire identitate-erakuntzaz belaunaldi honen parte izateagatik. Demokraziaz gozatu zuen belaunaldia izan ginen, eta, aldi berean, diktadura osteko larrialdiko hezkuntza-plan bat aldatzeko borrokatu behar izan genuen. Ziur lehen belaunaldia izan ginela kalean musukatzen arriskurik sentitu gabe, eta botikan erositako porroa erretzen. Garai hori gogoratzeko eta argazki bat uzteko modu bat da diskoa. Sinesgaitza egiten zait pentsatzea datozen belaunaldiek berriro borrokatu beharko dutela lortutako eskubideen alde, munduaren egungo eraldaketek eta gorroto diskurtsoen aurrerapenak erakusten baitute eskubide horiek galduz joan gaitezkeela.

Behin irakurri nuen Susy Shock abeslari argentinarra entzun zenuenean *Milongón del Guruyú* abesten, hunkitu egin zinela, jendaurrean abestu zenuen lehen abestia izan zelako. Zer du berezi abesti horrek zuretzat?

Oso abesti garrantzitsua izan zen niretzat. Adriana Varela bertsioa entzun nuen eta ezin nuen sinetsi kantatzen ari zen pertsona emakumea izatea. Emakume izatearen eraikuntzagatik eta inposatzen zidaten guztiagatik. Gaur egun eskertzen dut nirea ahots hegemonikoa ez izatea, hori da definitzen nauena. Etxeko patioan zuzenean jo nuen lehen aldian, abesti hori kantatu nuen eta Mandrake Wolfen *Amor Profundo* kantaren bertsioa, *loop*-ean. Oso gauza politetara eramaten nau: eszenatoki bat asmatzera edonon eta kaleko kultura horretara.



Liliana Herreroren ahotsak eta beste ahots ez-hegemoniko batzuek ere bulztatu ninduten. Orain Liliana Herrerok disko bat atera du nire hiru kantarekin eta bere ahotsean entzuteak hunkitu egiten nau, abestu nezakeela sinetsarazi zidaten ahotsetako bat delako.

Konposatu zenuen lehen kantetako bat amak Maiatzaren 1eko manifestaziora joaten utzi ez zizunean egin zenuen. Zer zenioen abesti horretan?

Jendeari erakutsi nahi izan nion lehen kanta izan zen. Oso arraroa izan zen, nire amak bizitza osoan erakutsi zidalako manifestazioetara joaten, baina egun hartan bere zigor modua bertara joatea debekatzea izan zen. Eta *Boceto de un primero de mayo* [Maiatzaren 1eko zirriborroa] abestia idatzi nuen, nire burua manifestazioan irudikatuz. Konpartitze-gogoa sentitu nuen eta hori lehenago ez zitzaidan gertatu. Gaur arte uste dut ez dudala egin, kontakizun poetikoari dagokionez, irabaziko dion abestirik. 12 urte nituen eta orain esaten dut: "Gustura konposatuko nuke berriro horrela".

Abian Kultur Elkarteko kontzertuan esan zenuen Mocchi proiektu politikoa dela. Zertan datza proiektu hori?
Elkarrekin egotea eta bakoitzari zer

“ ”

Nire ahultasun sakonenetik kantatzen dut orain, baina ikusgai nago

gertatzen zaigun entzutean datza. Hau da, pertsonen bidez leku bakoitzaren testuingurua ulertzen saiatzea. Hori da politika egiteko, leku bakoitza bizitzeko eta kontakizun propioa izateko moduetako bat, ondoren kontakizun komun bat eraikitze eta historia egiteko moduak zalantzan jartzen hasteko. Beti ari gara politika egiten, baita ezer egiten ez dugunean ere. Askoz ere osasuntsuagoa den industria berri bat sortzen ari gara. Estrategia politiko baten parte naiz, dagoenak ez didalako balio eta ez duelako nireen antzeko idealik. Proiektu honekin giza harremanak sendotu nahi ditut, mundua aldatzeko. Nire ustez, batzuetan munduaren aldaketa gauza txikietan dago: bertan egotea eta norbaitek behar zaituenean erantzutea edo esatea "asteazkenetan Buenos Airesen jubilatua jotzen ari dira, zer egin dezaket?".

Zure abestietako batean diozunez, "isiltasun oro politikoa da"...
Isiltasunak gauza asko komunikatzen

ditu. Jendeak bozkatu bazaitu, jendeak ahotsa eman badizu, isiltasuna oso mezu gogorra da. Pertsona batzuk ezin dira isilik egon eta ezin dute ez entzun. Beste isiltasun mota batzuetan ere pentsatzen dut: gu, pertsona transak, trabestiak, izendatzen ez gaituztenean, "disidentzia" deitzen duten horren barruan ez-kutatzean. Isiltasun hori ere, politikoa da, eta horretan eragin dezakegu. Emakume eta disidentzien inguruko zerbaitetara deitzen nautenean, identitate guztiak izendatzen badituzte baino ez dut parte hartzen; adibidez, trabesti hilak izendatzen badituzte, ni honaino ekarri nautenak baitira. Isiltasun hori arrisku-tsua ere bada. Askotan konturatzen naiz ezin nautela izendatu.

“ ”

Irratia piztu eta [Pepe Mújica] hitz egiten entzuteak bizitza asko aldatu zigun. Guk ulertzeko moduko politika egin zuen

“ ”

Yamandú Orsi
*lehendakariak gauzak
 ondo egingo dituela
 pentsatu nahi dut,
 bestela hurrengo
 hauteskundeetan eskuina
 izango dugulako berriro
 aurrez aurre*

Kontzertuan esan zenuen gero eta zaurgarriago agertzen zarela diskoetan.

Nire diskoetan armairutik irten naiz. Hasieran, oso metaforatik konposatzen nuen, unibertso poetikoaren atzean ez kutatzen nintzen pixka bat. Nire ahultasun sakonenetik kantatzen dut orain, baina ikusgai nago, eta zaindu beharreko ingurune batean egon behar dut horretarako. Hurbileko jendeak oso ondo ezagutzen du nire hauskortasuna, lehen neuk ere ez nuen ezagutzen. Batzuetan min ere ematen du.

Eta grabatzeko moduari dagokionez, zer da zuretzat garrantzitsua estudioan zaindua sentitzeko eta zaurgarritasun hori erakutsi ahal izateko?

Maila teknikoan, beti borrokan aritu behar izan dut, unibertso oso matxiruloa baita: gauzak nola egin behar ditudan esan izan didate gizonek. Gizon atseginekin egin izan dut topo, baina, hala ere, gauzak askoz gehiagotan errepikatu behar izan ditut, gizon zisa izango baintz baino. Aldatu beharreko unibertso bat dago. Lehen ez nengoen hain ahaldunduta, orain erabaki batzuk har ditzaket, ni bainaiz abestiak egin dituen eta nola entzun nahi dituen dakiena. Asko borrokatu izan naiz hona iristeko. Lehen konbentzitzen ninduten esaten ari nintzena ez zegoela ondo eta gizonezko bat ari zen esaten hori zela nire diskorako onena, nahasketari, instrumentazioei eta ideia musikalei dagokienez. Egia zela pentsatzen nuen azkenean.

Lehen esan duzu musikaren industria ere aldatu nahi duzula. Zer irauli nahi duzue Mundo Mejor taldeetik?

Asko hunkitzen nauen zerbaite eraiki



dugu, gizateriarenganako fedea itzultzen dit inguruan dudan taldeak. Badakit zaindua sentituko naizela eta nire jendeak besteak zainduko dituela, publikoa zainduta egongo dela. Lagunez osatutako ekoiztetxea gara, eta mundua aldatzea helburu duten gauzak ekoizten ditugu.

Pepe Mújicaren beila-egunean hasi zenuen bira, zure abestien esaldiak idatzita dituzten kamisetak ikusi genituen argazki batzuetan. Zer eragin zizuten irudi horiek?

Aurreko egunetan gutxi falta zela esaten ziguten lagunek, bagenekien gertatuko zela. Poztu naiz berak aukeratu eta eraiki zuen gobernu bat utzi digulako. Mújicaren proiektu politikoak bizitza aldatu zidan. Frente Amplio delakotik [Uruguako zentro-ekzerreko eta ezkerreko koalizio politikoa. Gobernuko alderdia izan zen, besteak beste, Mújica presidentea izan zenean] hurbil geundeenok ez ginen konturatzen bere irudiak munduan zuen dimentsioaz; agian hala pentsatuko genuen Uruguairen tamaina txikiagatik. Jendea agur esaten ikustea izugarria izan zen, eta nire kamisetak hor ikustea egoteko modu bat izan zen. Mújica pertsonaia eztabaidagarria izan zen, baina ukaezina da bere mezuarekin gizateriari on egin ziola, alderdien politikatik haratago. Irratia piztu eta hitz egin entzuteak bizitza asko aldatu zigan: pentsatzeko, hausnarketa eraikitzeko, unibertso politikoaren parte sentitzeko eta horrek gurekin zerikusia zuela sentitzeko gaitasuna eman zigan. Guk ulertzeko moduko politika egin zuen.

Euskal Herriko kontzertua maiatzaren 31n izan zen, Nora Cortiñas Maiatzeko Plazako amaren heriotzaren lehen urteurrenean. 70eko hamarkadako borroketako pertsona erreferentea, hori ere. Memoria ez ahaztearen inguruan publikoarekin batera loop-ean abestu zenuen. Ederra izan zen.

Adierazpen artistikoak tresna garrantzitsuak dira esateko: “Hemen gaude, hau gertatu zen”. Oso garrantzitsua da historia kontatzea, berreraikitzea, osatzea, horregatik da hain arriskutsua isiltasuna. Baina historia kontatzeaz herria ez bada arduratzen, gutxienez ondo kontatzea ez dago behar. Zeintzuk dira gure erreferenteak orain? Zer dugu eskaintzeko? Hutsune bat dago, ez dut uste Argentinako jende guztiak Milei bozkatu duenik berak bezala pentsatzen duelako. Oposizioak gauza asko gaizki egin zituela uste dut eta erreferenteak ere falta dira. Jendea aspertu egin zen hain txarra ez denari bozka emateaz. Orain Uruguain Yamandú Orsi lehendakari izateak itxaropena ematen dit, eta aldi berean beldurra sentitzen dut: gauzak ondo egingo dituela pentsatu nahi dut, bestela hurrengo hauteskundeetan eskuina izango dugulako berriro aurrez aurre. Fidatzen naiz, baina ez ditut eskuak sutan jartzen inorengatik. Frente Ampliorengatik ere ez. Bozkatu eta militatu egin nuen, fidatzen naizelako, nahiz eta batzuetan inozoa naizela uste dudan. Palestinarren genozidioan irmoki ez posizionatzeak ilusioa galarrastzen dit. ●



Travis Tea

“Drag-ari esker deskubritu nuen pertsona trans bat nintzela”

“Bohemioa”, “poeta”, “mozkorra” eta “amodioaz maiteminduta” dagoen drag bat da Travis Tea (2024, Travistonia planetakoa). Autopertzepzio bat dela dio, eta kanpotik “talenturik gabeko eta antigoaleko poetatzat” dutela. Drag-a genero sistema binarioa zalantzan jartzeko tresna politikoa izan daitekeela uste du. Poesiaz baliatzen da maitasunaz eta desamodioaz mintzatzeko.

OLAIA L. GARAIALDE ZOE MARTIKORENA

Txiki-txikitatik izan du drag-arekiko grina Travis Tea artistak. Hala ere, pandemiara arte ez zeukan drag king artisten berririk. Horiei esker, makillatzen eta probatzen hasi, eta mundu berri bat zabaldu zaio: “Sentitzen nuen drag queen-en artean ez nuela lekurik”. 2024an, oholtzara igo zen lehenengo aldiz. Bilboko House Of Basqueers Kultur Elkartearen egin zuen debuta: “Trabestitzeko eta drag-a auzora hurbiltzeko espazio bat da. Oso leku polita da”.

Azaldu du ez dela kasualitatea drag king-a beranduago deskubritu izana, eta nabarmendu du lotura “handia” duela matxismoarekin: “Historikoki drag queen asko, baina ez denak, maskulinitatea performatzen duten gizon gayak izan dira, eta king-ak maskulinitatea performatzen duten emakume lesbianak. Orduan, emakumeek egiten

“Uste dut artiston ardura dela drag-a politikoa izatea eta zenbait rol apurtzea”

dituzten gauzei beti ikusgaitasun gutxiago ematen zaie”. Hala ere, edonork egin dezake drag-a.

Gainera, ez du gustuko queen eta king-en arteko bereizketa egitea, eta bere burua etiketa baten edo bestearen barruan sailkatzea. Izan ere, iruditzen zaio genero sistema binarioa “indartu” dezakeela: “Uste dut artiston ardura dela drag-a politikoa izatea eta zenbait rol apurtzea. Nire kasuan ez-binarioa naiz drag-etik kanpo; orduan, drag-ean ere”. Ekainaren amaieran, Burlatako (Nafarroa) Lumak Travesti Fest jaial-

dian izan zen, eta Albina Stardust drag artistak aldagelan esandako hitzak nabarmendu ditu: “Albinak esan zuen genero rolak apurtu nahi baditugu, ongi legokeela drag-aren barruan ematen diren rolak apurtzea ere, eta ez mugatzea queen edo king garela esatera”.

Asko mugitzen da heavy munduan, horregatik, hasieran kritika egin nahi zion 1980ko hamarkadako hard rock munduari. Garai horretan adierazgarriak ziren, besteak beste, glamourra, ileorde handiak, praka estuak eta makillajea: “Kanpotik ematen du ez dela oso maskulinoa, baina behatu dudana gatik jenderik matxistena da. Emakumeak objektutzat dituzte eta beti ari dira emakumeekin larrutan egiteaz hizketan”. Horregatik, hori irudikatzen zuen gizon baten estereotipoa performatu nahi zuen, baina azkenean erabaki zuen ez zela ideia ona: “Pentsatzen hasi, eta neure buruari galdetu nion ea benetan



performatu nahi nuen matxirulo bat. Ez nuen jada existitzen den genero rol bat indartu nahi”.

Zenbait artistaren estrategia edo bidea rol horiekin jolastu, mugara eramanez, eta horietaz barre egitea da. Horren helburuetako bat da rol horiek erridikuluak direla ikusaraztea: “Drag batzuek egiten dute, eta itzela iruditzen zait, baina ni ez naiz barregarria. Orduan, jendeak ez luke ulertuko parodia bat dela”.

POESIATIK ERALDATZEN

Azkenean, heavy mundua albo batera utzi, eta beste bide bat hartu du Travis Teak: “Amodioaz maiteminduta dagoen poeta bohemio eta mozkor bat da. Kanpotik, talenturik gabeko eta antigoaleko poetatzat daukate”. Emanaldi batetik bestera gauza batzuk aldatzen dituen arren, poemek leku handia dute eszenaratzean: “Nire poemak

irakurtzen ditudanean erraietan daukadana erakusten dut. Oso katartikoa da”. Maitasunaz eta desamodioaz mintzo da poemetan, baina ez dio generoari erreferentziarik egiten: “Ez dakit jendeak ulertzen duen harremanak sortzeko modu desberdinak daudela”.

Askatzeko tresna izateaz gain, kontatu du drag-ak bidea “argitu” diola: “Drag-ari esker deskubritu nuen pertsona trans bat nintzela. Gogoan dut lehenengo aldiz jantzi eta makillatu nintzenean negarrez hasi nintzela, ispiluaren aurrean horrela ikusi nahi nuelako neure burua. Orduan konturatu nintzen urteak neramatzala horri ez begiratu nahian”. Argi ikusi zuen zerbait egin behar zuela horrekin: “Jolas bat bezala da hasieran, baina gero ikusten duzu beti izan nahi duzula horrela”. Gaineratu du beste pertsona trans askorentzat ere lagungarria izan dela. ●



GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Erraiak. Nire poemetan ia beti erraiez hitz egiten dut zerbait sakona delako. Filosofikoki hitz eginda erraietan daude sentimendurik sakonenak”.

ERRALDOIEN LIBURUA



Erraldoien magia itzuli da Alajainetara

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Izar, Ainubi, Etxahun eta Kukuttur-lio izenak ezagun bazaizkizu, seinale etxean edo inguruan baduzula erraldoien lilurak harrapatuta daukan haurren bat. Alajaineta herrian kalejira galzorian egotetik indartuta atera zen Gorka Bereziartuaren eta Adur Larrearen *Salba dezagun kalejira* liburuan, Alkatearen eta bere morroien zorigaiztorako. Orain, abentura berriekin datoz gure lagunak. Aurkeztu berri dugu *Hegan*, Abentura erraldoia bildumaren bigarren liburua.

Magiaz beteta dator bigarren hau ere. Aurrenekoan, erraldoi bat hegan ikusi zutelakoan daude Etxahun, Izar eta Ainubi; baina, hori posible al da? Bigarren abentura honetan aspaldi-aspaldi gertatutako kontuak ezagutuko dituzte. Eta,

orain bai, erraldoi hegalaria badaudela sinetsi beharko dute gurasoek.


"Alajainetan badira euskal tradizioaren parte diren erraldoiak, baita beste mitologia garaikideagoen parte diren figurak ere (Marveleko super-heroiak, adibidez)", azaldu zigun Bereziartuak 2024ko urrian egindako elkarrizketan, eta horri gehitu zion Larreak: "Saltsa ederra dugu ipuinean, bai, eta erraldoi ugari aurki ditzakegu: Zumalakarregi, laboraria, Gasteizko erraldoietako erregea... eta tartean daude asmatuak, Gorkaren hitzetatik abiatuta psikodelia pixka bat sarturik atera diren erraldoiak". Gauza berriak probatzeko ate txiki bat ireki zuten duela urtebete. Ez dira liburu pedagogikoak izateko jaio, "irakurketak eta literaturak, plazera

izan behar du, batez ere", diote. Prozesuan eta prozesuaz ere gozatu dutela azpimarratu zuten lehen ere, binakako sorkuntzan, idazketa eta marrazketa uztartuz; zioten, Alajainetak badituela oraindik abentura asko gordeta eta heldu da bigarrena, hirugarrenik egongo den jakin gabe.

Maskuri, dultzaina, txistu... jai giroan sumatzen badituzu, gerturatu badaezpada, ARGIAko lagunak ere, liburu berria saltzeko aitzakiapean, erraldoi eta buhurdien ondora gerturatzeko asmoa baitute. argia.eus-en jakinaraziko dute zein festatan izango diren, beraz, adi!

Eta ezin baduzu zain egon, sartu berehala azoka.argia.eus atarian, deitu edo idatzi bertara (telf.: 943 37 15 45 eta posta: azoka@argia.eus). ●

Langileak vs. makinak




**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Anstey (Ingalaterra), 1779. Leicesterren kanpoaldeko herriko ehungintza fabrika batean, ugazabak Ned Ludd izeneko aprendizari errieta eta jipoia eman zizkion, ehungailua gaizki erabiltzen ari omen zelako. Haserre, Luddek mailu bat hartu eta bi makina hondatu zituen.

Baliteke kondaira hutsa izatea, Ludd existitu zeneko frogarik ez baitago. Baina Ingalaterrako langileen artean 1811n eztanda egin zuen mugimenduak harengandik hartu zuen izena. Luddismoak mekanizazioaren kontra egin zuen, Luddek ustez egin bezala makinak suntsituz, makina haiek langileen eskubideak urratu eta lan-baldintzak okertzen zituztela argudiatuz.

Mugimendua ez zen Ingalaterrara mugatu eta antzeko industrializazio prozesuak izan zituzten eremuetan ere ludditek bidea egin zuten. Iberiar penintsulan, Euskal Herria eta Katalunia izan ziren ingeles ereduari gehien jarraitu zioten lurraldeak; berriki, *Sàpiens* aldizkariko ekaineko alean, John McAulay kazetariak luddismoak Herrialde Katalanetan egindako bidea xehe aztertu du.

Iberiar penintsulako lehen ekin-tza luddita Alcoin (Valentzia) egin zuten. 1821eko martxoaren 2an, 1.200



pertsonek Alcoiko fabriketara jo zuten, ehungailu berriek artisau familien lana mehatxatzen zutelako. Hamazazpi makina hondatu zituzten eta, enpresako jabeekin negoziatzen hasi arren, armadak itzali zuen protestaldia. Handik bi urtera Gironako Camprodon herriko ehuleak matxinatu ziren makinaren aurka, eta berriro ere interbentzio militarrek zapuztu zuen ahalegina, hainbat matxinoren aurka gerra kontseiluak egite-raino. Gainera, 1824an Errege Agindu bat jarri zuten indarrean Camprodongo Udalaren erantzukizuna jaso eta handik aurrerako ahaleginak neurri zorrotzen bidez saihesteko. Baina luddismo katalanaren adibide nabarmenena Bartzelonan

gertatu zen, 1835ean. Bi urte lehenago bertako Bonaplata enpresa izan zen lurrun-makinak erabiltzen lehena. Aurrez kaxkarrak ziren lan-baldintzak okerrera egin zuten. Langileek makinak eraso orde, zuzenean fabrikari su eman zioten.

Euskal Herriko industrializazio prozesua aintzat hartuta, pentsa liteke luddismoak ere bidea egin zezakeela gurean. Baina, beharbada ehungintzak halako pisurik ez zuelako, ez zen ekintza ludditarik izan. Nacho Caveró Garcés historialariaren esanetan, ordea, “zuzenagoa litzateke kasurik

egon ote zen ez dakigula esatea, Espainian matxinada ludditen gaia oso gutxi aztertu delako, Alcoiko edo Bonaplatako kasuak salbu”.

Ingalaterran nahiz beste toki batzuetan, Luddismoa azkar itzali zen, bere helburuak lortu gabe. Baina teknologiarren mehatxuen gaiak gaurkotatzen ez du galdu, eta neoluddismoa ere garatu da korrante filosofiko gisa. Baina Caveró Garcésen ustez, luddismoa makinak suntsitzeaz haratago doa: “Ludditak sistema ekonomiko berriaren aurka altxa ziren, iraganeko lan-komunitateen babesa eta elkartasuna kupidarik gabe suntsitu zuen sistemaren aurka”. ●



Pandemia zaharrenaren jatorriaz

541. urtean izurriak Bizantziar Inperioa astindu zuen. Historian erregistratutako lehen pandemiatzat jotzen da, eta luzaroan historialariek uste izan dute Afrikako ipar-mendebaldean izan zuela jatorria. Baina berriki *The Journal of Interdisciplinary History* aldizkarian argitaratutako ikerlan genetikoak oso bestelako emaitza izan du: izurria Asian

sortu zen, zehazki, huno tzurien edo heftaliten lurraldean. Horrez gain, izurriak egindako bidea zehaztu ahal izan dute: abiapuntutik Indiara iritsi zen eta, handik, itsas merkataritza medio, Itsaso Gorriaraino eta, beraz, Afrikaraino iritsi zen. Beraz, egia da izurria Afrikako ipar-mendebaldetik iritsi zela Bizantziora, baina jatorria ez zuen han izan. ●

“ZAZPI SENDABELAR UKENDUA”-RI ZOR DIOGUNA



GARBIÑE LARREA
ITURRALDE



DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Ukenduak egiten dituen orok solstizio bueltako data hauetan zeruari begiratu dio: bateko beroa eta besteko ekaitzak, sendabelarrak noiz bildu erabakitzen komeriak izan dira. Ikusten denez, San Joan eguna ez da edozein egun, indar eta sinbolismo bereziko eguna dugu. Edozein direla ere sendabelarrak, edozein dela ere horiek bildu ditugun tokia, ekainak 24an egin badugu bilketa, ukenduak balio handia duenik ez da auzitan jartzen.

Ukendurik erabiliene izango da ia ziur, urte osoan egingo duten bakarra, askorentzat. Estimatuena dutela entzuten diet askori. Gaur egun gizarte aberatsean bizi gara eta ukendu mota asko ditugu baina ez hain aspaldi, ukendu bati dena edo ia dena sendatzea eskatzen zitzaion. Eta ondo egiten zuela esan dezakegu, nahiz badakigun oro sendatzailerik ez dagoela. Horregatik, formulari ekin aurretik esan nahi dut niretzat umiltasun lezio dela ukendu hau, etxe askotan belaunaldiz belaunaldi jaso den jakintzak lehen bezala orain ere egiten duelako bere lana, mundua asko aldatu bada ere.

Sendabelar basatiekin, oliba olioarekin eta argizariarekin egindako ukendu

honek ez du beste erremedio askoren inbidiarik. Orain sinetsarazi nahi digute olio esentzialak, sendabelar exotikoen aktibo indartsuak eta ez dakit nongo (eta nolako) aktibo kosmetikoak behar ditugula azalean gerta daitezkeen edozein egoerarentzat baina ez da egia.

Zazpi gaitzen kontrakoa dela diote askok. Zazpi sendabelar dituela argi dago baina zergatik galdetzen didatenero erantzun argirik ezin izaten dut eman, uste izatea ez baita jakitea. Hori bai, gure inguruan bildutakoak izan daitezela. Askok basatiak esan ordez debaldekoak direla esatea nahiago dute; gure amonartzat Jainkoak debalde emandakoak ziren.

Zein sendabelar erabili behar diren ere ez dago argi eta horrela hobe. Tokian tokikoarekin, garaian garaikoarekin eta urtean urtekoarekin egiten dugu. Beraz, beti formula bera egitea ortodoxoen kontua dela dirudi, formula aldatu eta egokitzearen aldekoa naiz; asko ikasten delako hartara. Hori bai, badira hiruzpatalau sendabelar den-denok ipintzen ditugunak eta hori zerbaitengatik da.

Santio-belarra (*Hypericum perforatum*), berbena (*Verbena officinalis*), pasmo-belarra (*Lysimachia arvensis*) eta plantaina arra (*Plantago lanceolata*)

dira urteotako eskarmentuaren arabera aldaezinak. Horiekin batera asuna (*Urtica dioica*), azeri buztana (*Equisetum arvense*) eta zaingorria (*Geranium robertianum*) ipini dizkiogu azken urteetan baina bostorria (*Potentilla reptans*) eta intsusaren (*Sambucus nigra*) edo ilenaren (*Calendula officinalis*) lorea ere ipin zitezkeen, beste askoren artean.

Kolpeak bezain ongi tratatzen ditu zauriak, biak batera gertatzen direnean (ebakuntzak kasu) ere bai. Pikorrak, erredurak, ziztadak eta narritadurak baretzeko lana ongi egiten duela badakigu. Aurten emandako ikastaroetan ehun pertsona inguruk ikasi dute egiten eta askok berehala erabili dute eguzki erredura zaintzeko, marmokak besoon utzitako hantura tratatzeko, ezpain kontrako zauria sendatzeko, ikastaro ondoren aulkiak jasotzerakoan kokotzean hartutako kolpea goxatzeko...

Aitorpena eginez bukatzeko, nik ibilbide hau hasi izana zor diot. Duela urte asko, lagun leitzar bat ukendu hau egiten irakatsi behar nuela tematu baitzen, zer zetorkidan ez berak eta ez nik antzeman ezin genuela. Eskerrik asko zazpi sendabelar ukenduari, beraz, eta eskerrik asko zuri, Ainara de Miguel. ●

A ZE FAUNA!

EHIZTARI BAT ILUNPEAN



IÑAKI SANZ-AZKUE
ARANZADI ZIENTZIA
ELKARTEKO KIDEA

Sugea eta eguzkia: pertsona askoren buruan banandu ezinak diren bi hitz. Sugea entzuten dugun aldiro, egun bero eta argi bat irudikatzen dugu. Buruak hala funtzionatzen baitu: asoziazio horiek egiten ditu duen informazioarekin. Eta ez da arraroa, bestalde; izan ere, sugeak animalia ektotermoak dira eta beroa behar izaten dute haien gorputza martxan jartzeko. Hori egiteko, ordea, modu asko daude. Egunez eguzkia hartzea aukeretako bat baino ez da.

Hegoaldeko suge leuna (*Coronella girondica*) tamaina txikiko sugea da, eta horrek baditu bere abantailak: ez du bero handirik behar gorputzeko tenperatura igotzeko. Horri, ordea, gehitzen dio beste ezaugarri bat: egutera zalea da, eta beraz, gune eguzkitsuetan egon ohi da.

Gorputz txikikoa, leku eguzkitsuak maitatuena eta... harrizalea amorratua da. Landareta gutxiko eremuetan, harri asko dagoen lekuan topatuko dugu maiz hegoaldeko suge leuna. Hala, ezaugarri horiek guztiak josita, sortzen du traje eder bat, beste sugeetatik bereiziko duena. Hegoaldeko suge leunak egunez hartzen du behar duen beroa, baina harrien behealdean ezkutatuta. Tigmotermoa da. Harria berotu egingo du eguzkiak, eta berak, azpian gordeta, bero hori jasoko du, harritik. Behin berotuta, gaua gerturatzen denean, ilun-

bistan, aterako da ezkutalekutik, eta orduan... jarriko da martxan. Suge ehiztaria ilunpean.

Kuriosoa da kontua: suge leunak egunez aktibo dauden harrapakinak jaten ditu. Sugandilazale amorratua da, baina jan ditzake musker txikiak edo ugaztunak ere. Guztiak egunez mugitzen diren animaliak. Gazez ehizatzen badu, nola jaten ditu eguneko animaliak?

Gorputz txikia eta mehea du hegoaldeko suge leunak. Marroixka edo gorritzat, gris antzekoa ere izan daitekeena batzuetan. Horrek lagunduko dio harri artean ezkutatzeko, zirrikitu txikienetatik barrena ere sartzen eta hala, gazez animalia guztiak harri azpian edo harkaitzetako edo hormetako zirrikituetan ezkutatuta dandean, suge leunak bere arma erabiltzen du. Ilunpean aterako da ehizatza eta hor harrapatuko ditu guztiak lo antzean, harrien babesean.

Hegoaldeko suge leunak badu lehen-gusu bat, hura ere *Coronella* generokoa: iparraldeko suge leuna. Antzekoak dira oso biak, baina ezkata batzuen formak edo kantitateak ezberdintzen ditu, baita sabalaldeak ere: hegoaldekoak xake taula baten itxurakoa du; iparraldekoak, beltza.

Muskerzalea da, bai, eta sugea txikia izanik, muskerak ere tamaina txikikoak jango dituela pentsa daiteke... baina... us-



HEGOALDEKO SUGE LEUNA *Coronella girondica*

TALDEA: Ornoduna / Narrastia.

NEURRIA: 60 cm gehienez.

NON BIZI DA? Leku egutera eta harritsuetan.

ZER JATEN DU? Sugandilazale amorratua da.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

teak erdia ustel! Europa osoan hiru lekutan aurkitu izan dira hegoaldeko suge leunak musker helduak jaten, hiru horietatik bi, Euskal Herrian. Bata Amurrion, 2012an, eta bestea Goizuetan, 2020an. Ahoa zabal-zabal eginda, bera baino askoz lodiagoa den muskerra burutik harrapatuta eta irentsi nahian. Irudiak ikusgarriak dira (*Zu hobeto jateko!* hura dakarkigute gogora).

Ezkutuan ibili ohi denez, ez da oso eza-guna izan Euskal Herrian. Izenik ere ez zaio jarri aldaera ezberdinetan, eta nahastu izan da sugegorri gaztearekin. Hegoaldeko suge leuna, ordea, ez da pozoitsua, ezta arriskutsua ere. Gure biodibertsitatearen pieza txiki bat gehiago baino ez da ornodun berezi hau, besteak baino gehiago edo gutxiago balio ez duena, baina era berean, sare konplexu horren barruan bere garrantzia duena.

Hala, beste behin, agerian gelditzen da sugeak ezagutzeko eta hobeto ulertzeko beharra. Horrek ekarriko baitu errespetatzen dituen eta liluraz begiratuko dituen gizarte berri bat eraikitzea. ●

JOAN DENEKO USAIN BETE EKAIN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Eguna mozten hasten den hilabetea, ekaina. Festa aparretan gabiltza baina xorro-xorro, hau esku artean duzunerako dagoeneko hamalau minutu moztu da egun argia. Gu gure eroan, batzuek bere txoroan, ez gara ja-betzen baina landareak bai ederki asko! Eguna mozten hasi da eta ez dio mozteari utzikio datorren abenduaren 21 arte, ordurako sei ordu eta hogeita bost minutu laburtuko da egun argia.

Beren energia iturri nagusia den argia gainbehera doala jakitun, neguarekin sufritu egiten duten landare berozaleek loretara emana dute oraintxe bere jaki erreserba, baita hemendik atzera zikloa amaitu arte letorkeen jakitza ere. Loreak eta ondoren furituak eta haziak sortuko dira. Bide nekosoak izango da; urtekoa edo bi urteko ziklo motza dutenentzat azken bidaroa, bukaeraren hasiera.

Bizitza norainokoa duten badakitenez, azken ekinaldi bulkada hori begitan hartu beharko genuke; geurerako ikasteko, apika. Begitan eta sudurretan, izan ere, egun luzeenetako loraldiek zerbait ikusgarria badute, hori usaina da. Topatuko ditugu usain gozokoak, baina baita ere hauts usaina dutenak, ke usainekoak, lur usainekoak, pituitaria erretzen duten ezti gozoegizkoak, sats kirats ederraskokoak, goragalegileak, sudurra K.O. utzikio dizutenak, fruituen eulitxoek ez beste inork atsegin ez duten ozpin usain zorrotzekoak, polen usain garbikoak, zorabiatu eta min zuriraino eramango zaituztenak, doministikua ezinbesteko diosala dutenak eta abar. Egun luze, bero eta sargori hauetan, ez da udaberri freskoko lurrin fin-arin festa. Usain nabarmenik ez dutenak ere badira orain, berbena (*Verbena officinalis*) eta oreganoa (*Origanum vul-*



Astalarra lorea.

gare), adibidez. Baina nagusi dira lurrin gogor, sarkor eta erasokorrak, sasoiko intsektu berozaleek nahiago dituztenak.

Zakarra da, adibidez, Doniene uken-dua egiteko erabiltzen den osagai nagusietakoa: santio-belarra edo hosto-argala (*Hypericum perforatum*), gure sendabelarrik maitatuenetakoa; baina hankaz gora botatzeko moduko hauts usaina du. Antzekoen multzo horretakoak dira sasoiko lore hauek gehienak: gaztainondoa (*Castanea sativa*), andura (*Sambucus racemosa*), arbustu arrunta (*Ligustrum vulgare*), magnolia lore handia (*Magnolia grandiflora*), soroerregina edo burdilinda edo nasailora (*Filipendula ulmaria*), errarnoa (*Oenothera biennis*), sasi jasmina edo izar jasmina (*Trachelospermum jasminoides*), txikoria (*Cichorium intybus*), astalarra edo gardantxa zuria edo kilikia (*Dipsacus fullonum*), zuhain azenarioa edo zartagin ipurdia (*Daucus carota*), asta-uraza (*Lactuca serriola*), astalarrosa edo arkaratsa (*Rosa canina*), lezka hostoestua eta hostozabala (*Typha angustifolia* eta *T. latifolia*), goilora (*Epilobium hirsutum*), egur-belarra (*Lythrum salicaria*), heriotzorria (*Nerium oleander*), Konstantino-

plako akazia (*Albizzia julibrissin*), Siriako arrosa (*Hibiscus syriacus*), sanjorge lorea edo txirri-belarra (*Centranthus ruber*), tximeleta zuhaitza (*Buddleja davidii*), reinutria (*Reynoutria japonica*), Txinako xaboi-arbola (*Koelreuteria paniculata*), kana (*Canna indica*), agapantoa (*Agapanthus umbellatus*), izpiliku fina (*Lavandula angustifolia*), ezkerte (*Calystegia sepium*), atxaparra (*Lonicera caprifolium*) eta abar. Horietako asko usaindu nituen lehengoan Euskal Herria Zuzenean festibalerako bidean. Batzuk ezin eramane... Eta horrelako jendetzetan sekula falta ez den usainak ere eraso zidan, patxuliarenak (*Pogostemon cablin*). Eskerrak Arberatzen eta Zillhekoan dotorezia nabarmena zen etxe eta karpa arteko lore jendetzan eta jende loretzan.

Orain gaua puzten ari da eta loreak ilunpetan soilik irekitzen dituzten landareak ur gaineko bitsetan daude, gau-lorea (*Mirabilis jalapa*), adibidez. Gaztelaraz "dondiego de noche" esaten diote; frantsesez "belle de nuit". Garai batean Orion hondartza inguruan "putitas" esaten zioten; gaur, agian, "putitos" izango dira. Hitzegietako "prostitutu" seguru ezetz. ●

LARRINBARRI

AHABI EKOLOGIKOAK
ANBOTOPETIK

GARAZI ZABALETA



Aramaioiko Beñat Ibarguren Arrizabalaga da Larrinbarri ahabi ekologikoak ekoizteko proiektuaren bultzatzailea, eta 2012tik ari da Anbotopeko bere lursailetan fruitu gorri landareak eredu ekologikoan lantzen. “Lagun batek eta biok sortu genuen proiektua, hasiera batean, Kantabriako enpresa batentzat lan egiteko, baina duela hiru urtetik gure kontura ari gara lanean”, azaldu du Ibar-gurenek. Gaur egun bera da proiektuko kide bakarra.

AHABIAK, BERRIKUNTZA

Egitasmoaren bi bultzatzaileak base-rrian jaioak ziren eta bazuten harremana lehen sektorearekin, baina ahabien ekoizpena berria zen bientzat. “Lagun batek aipatu zigun nola hasi zen entzuten elikagai oso onuragarriak zirela ahabiak eta etorkizunera begira auke-

ra on bat izan zitezkeela”, dio. Horrela, Kantabriako ahabi-ekoizpen proiektu batekin harremanetan jarri ziren, lan nola egiten zuten ikasi zuten, eta Aramaion landatu zituzten bi hektarea. “Kantabrian denetik egiten zuten, ekologikoan eta konbentzionalean, baina guk hasieratik argi genuen ekologikoan egin nahi genuela lan, elikagai naturala nahi genuelako eta ekologikoa izateak produktuari balio gehigarria ematen diolako ere bai”.

Ahabiak bere horretan, freskoan nahiz izoztuta saltzen dituzte, baina eraldaketak ere egiten dituzte, zukua eta marmelada: “Kuartangoko Ekotarriko obratzaile txikian egiten ditugu eraldaketak: zukua, marmelada azukre bariak eta azukrearekin, eta izoztutako ahabiak bost kiloko formatuan”. Ahabia jendeak asko estimatzen duen produktua dela dio aramaioarrak, gauza nahiko berri-

tzailea delako, agian. Baina ekoizpenak lan handia duela dio, “gogo handiarekin hartu beharreko zerbait” dela.

BISITA GIDATUAK LURSAILETAN

Berriki, ekoizpenean bisita gidatuak antolatzeari ekin dio Ibargurenek. “Jendea-ri gustatzen zaio esperientzia moduan bisitak egitea, ikustea zer egiten dugun, lan nola egiten den, zein produktu ditugun...”. Bisitariak zuzenean ahabiak biltzen aritzen dira lursailean, eta horretan ari direla ematen dizkie Ibargurenek azalpenak, tokian bertan. Eta, noski, bisitaren ondoren dastaketarako aukera ere izaten dute hurbildutakoek.

Zuzeneko salmenta lehenesten du ekoizleak eta batik bat inguruko denda txikietan banatzen du produktua. “Aramaio inguruan, Arrasaten, Bergaran, Gasteizen, Durangon... inguru guztian egiten dut banaketa”, dio. ●

ZIGOITIA

ABUZTUAK 2
Larunbata

ZARAUZ

ABUZTUAK 22
Ostirala

ZUMAIA

ABUZTUAK 29
Ostirala

DONOSTIA

IRAILAK 6
Larunbata

ERRETERIA

IRAILAK 13
Larunbata

ALGORTA

IRAILAK 13
Larunbata

ZERAIN

IRAILAK 21
Igandea

AZPEITIA

IRAILAK 26
Ostirala

MUNGIA

IRAILAK 27
Larunbata

GASTEIZ

URRIAK 4
Larunbata

DURANGO

URRIAK 4
Larunbata

EIBAR

URRIAK 11
Larunbata

UDAKO AZOKA

EKOLOGIKOAK

Antolatzaileak:

Substentatzaileak / Financiado por:

Basque Government / Gobierno Vasco



Egunero jarri behar den artisaua da konpositorea

Jon Esnaola Agirre

Jon Esnaola (Tolosa, Gipuzkoa, 2000) konpositoreak Eusko Ikaskuntzaren saria jaso du joan den apirilean, Nestor Basterretxearen omenezko *LUUR* obrarengatik, eta lan horixe bera joko du Euskadiko Gazte Orkestrak orain, uztailaren 11tik 15era, EAEko hiriburuetan eta Hondarribian eta Azkoitian. Esnaolaren lana, musika garaikidean zentratua, Copland eta Shostakovich-enekin batera eskainiko da.

 GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Soinu laborategi handia da Donostia-ko Musikene eskola. Eraikin dotorea da kanpotik, beltza eta beiratez josia, eta, aurreiritziek esaten dute, zabar, *frikismo* maila handiko jendearen etxea dela. Jon Esnaola konpositore gazteak ere baietz dio; bera da *friki* horietako bat. Bakoitza izaten da berean *friki*. Baina, esan du, guztiok bezalaxe, mendira joan eta tabernan garagardo batzuk hartzeko zale ere badela.

Musikeneko ateak zabaldu dizkigu ostiral eguerdi batez. Hain justu ere Gradu Amaierako Lana aurkeztu eta atsedeen txikia hartu ostean. *LUUR* lana ez ezik, tribunalaren parean ipini ditu beste obra batzuk ere, eskuz idatzitako pentagramen liburuxka handi banatan. AR-GI Ari, sorkuntzan orduak eman dituen gelatxoa zabaldu, eserleku bana eskaini, leihoak ireki eta mahai gainean ipini ditu

bere lanak. Gu ez gara gai pentagrama horiei soinu ipini eta baloratzeko; bera-ri eskatu diogu, jakina, hori egiteko.

Partitura hauek mahai gainean jarri eta, imajinatzen dut, konposizioak audio bihurtuta ere entregatuko zenituela.

Gaur bai, Bilboko Orkestra Sinfonikoak grabatu dizkigulako, Gradu Amaierako Lana zelako. Baina bestela ez ditugu grabatzen.

Eta nola egiten duzue, bada?

Irakurrita... Irakasleek kristoren kapazitatea daukate; ikusitakoa entzun egiten dute beraien buruan.

Eta zuk, paperean idatzitakoa, ez duzu teklatuarekin-edo probatzen?

Normalean ez, ez. Nik paperean idazten

dut, eskuz, eta orkestrari ematen diot jotzeko. Baina ez dut probatzen. Noiz-behinka, gutxitan.

Hara...

Horretan oso zorrotzak dira irakasleak, eta asko estimatzen dute buruan daukaguna paperera ondo eramatea, egin nahi duzuna errealitateetik gertu egotea. Hor dago jokoa. Akatsak egin ditzakezu, ez duzu lortzen lehenengoan benetan nahi duzuna ondo plasmatea, eta hobetzen joan zaitezke interpreteak jotzen ari diren heinean. Baina...

[*Gravitaciones* deituriko koadernoak zabaldu du; iaz egin zuen obra hori Esnaolak. Zuzenketak eginda ditu pentagramaren gainean, boligrafoz, berak soilik ulertzen dituen eran]

... begira. Entseguak irauten baditu hoge minutu, eta obra honek hamar mi-





nutu, ia entsegu osoa hartzen du obra oso-osorik jotzeak. Hortaz, orkestrak osorik jotzen du, neuk *ti-ta* zuzenketak egiten ditut, eta interpreteei esan “zuk hau” eta “zuk bestea egin gero”. Azkarra izan behar da. Hori asko baloratzen da.

Nortzuk izaten dira orkestrako interpreteak?

Denetarik. Askok Musikenekoak, gradua egiten ari direnak nirekin batera. Eta beste batzuk EGO Euskadiko Gazte Orkestrara sartzeko sarbide proba gainditu dutenak.

Esan ohi da Maurice Raveli *Bolero* otu zitzaiola Ziburun, itsasoan bainu bat hartzen ari zela, eta uretatik korrika irten, etxera joan, eta busti-bustita zegoela idatzi zuela...

Askok erromantizatzen da [barre egin du].

Tira, zuri nondik datozkizu ideiak?

Edukitzen dut libreta txikitxo bat, eta beti bueltaka nabil honekin. [Atera du poltsatik; txiki-txikia da, eta horri lotuta arkatx nemiño bat dauka, bi aldeetatik zorrozituta]. Hemen apuntatzen ditut izenburu posibleak... eta edozer gauza etortzen zaidana. Gauza pribatuak ere badaude [itxi du libretoa].

“Nagia eragiten dit konpositoreon artean dagoen elitismoak”

Literalki poltsikoan eramateko moduko koadernotxoa da.

Konpositorea 24 orduz da konpositore, eta ezin dituzu ideiak galtzen utzi.

Noiz etortzen zaizkizu ideiak, edo non bilatzen duzu inspirazioa?

Pablo Picassok esaten zuen bezala, “inspirazioak lanean harrapa zaitzala”. Egunero jarri eta etorri egiten da. Egunero jarri behar den artisaua da konpositorea. Egia da momentuak daudela: adibidez, asko gustatzen zait mendira joatea, korrika egitea. Momenturik onenak horiek zaizkit, burua oso fresko daukadanetakoa.

Mendira ere libretoarekin joaten zara?

Normalean ez. Ideiarik etortzen bazait, saiatzten naiz memorizatzen. Normalean izenburu batetik abiatzen naiz, gauza oso sinple batetik, detaile edo ideia batetik, eta puntuak lotzen hasten naiz, hariak balira bezala.

Zer dira hari horiek? Soinuak?

Bai, edo beste batzuetan partiturak ikusten ditut idatzita nire buruan. Edota pintatzen jartzen naiz, pinporta edo marra batzuk egiten, eta nire buruari galdetzen diot ea margotu dudan hori nola pasa dezakedan musikara, eta zer soinu izan daitezken pinporta horiek.

Mendian entzuten dituzun soinuek inspiratzen zaituzte?

LUUR idazteko bai. Obra entzutera joaten denak entzun ahalko ditu hainbat soinu identifikagarri: adibidez, zuhaitzak haizearekin mugitzen direnean egiten duten soinuen parekoak sartu ditut. Biolinarekin egin daitezke. Beno, baina gauza abstraktuak ere badaude. Ez du zertan dena hain figuratiboa izan. “Hau baso bat da”. Bai, baina agian ez. Norbaitek tankera hartuko dio eta beste norbaitek ez. Entzun eta listo, epaitu gabe. Utzi soinu horiek existitzen. Uste dut hori dela musika garaikidea egiten dugunon lanetako bat; ez du beti esplikaziorik behar.

Hori esatera nindoan: musika klasikoaz ere mintzatuko gara, baina musika garaikidea da egiten duzuna. Zertan datza aldea?

Garaikidea da garaikoa delako, baina gehiago zentratzen da esperimentuak egitean. Adibidez, klarinete bat



musika klasikoan joko genuke ohiko moduan, eta garaikidean, agian ahoko iragazkia kenduko genioke, eta soinuarekin espermentatu, edozer gauza egitea balitz bezala. Nolabait ere, garaikidean, esango nuke, musika klasikoan orain arte sortutakoa puskatzen dela. Eta hor elektronikari sartzen da. Popean eta rockean ere erabiltzen da elektronika, baina modu tradizionalago batean. Hemen, buelta bat gehiago ematen diogu denari.

Interesatu zait figuratiboaz eta abstraktuaz esan duzuna. Lan interesgarria da biak uztartzea.

Gustatzen zait bi munduak lotzea: intelektual mundutxo hori, musika klasikoaren *frikiak* garenona; eta herriarena dena. Tribunalekoekin horri buruz aritu naiz hizketan Gradu Amaierako Lana aurkeztu dudanean. Nola bilatu bien arteko oreka justua? Ari zait kostatzen, asko, eta urteak emango ditut horretan.

[Pentagrama bat zabaldu du] Adibidez, hemen, zortziko bat entzun daiteke [txistuz kantatu digu]. Baina gero abstraktura egiten da salto. Eta ezingo nuke esan zer den beste zati hau; norberak hartzea diola tankera. Hortaz, bien arteko oreka bilatu nahi nuke. Adibidez, pinturan, figuratiboa litzateke aurpegi bat ikustea, eta bestea abstrakzio totala, ez dela ezer identifikatzen.

“Oteizak zioen bezala, obra bakoitza aurrekoaren ondorengoa da”

Tartean dago Picasso. Bere aurpegia dira lau marra, baina aurpegi bat da; oreka dago.

Zeinen lan zaila.

Errazagoa da erabat abstraktua egitea. Edo erabat figuratiboa.

Orain arte ez dugu esan, baina LUUR obra Nestor Basterretxearengan inspiratuta eta hari omenaldi moduan egin duzu; aurrez ADA'RA, zuhaitzen adar hautsietan gogoetatuta; ORTZI ere egin zenuen. Eta Gravitaciones iaz, Eduardo Chillidaren obran inspiratuta, eta haren omenez.

Ezagutzen nuen Chillidaren obra, eta ez nuen nahi zerbait tipikoa egin. Berak, *Gravitaciones* deiturikoan, hartzen zituen paperak, papiroa bezala, eta bata bestearen gainean ipintzen zituen. Baina itsatsi gabe, eta zintzilika. Bolumena

sortzen du horrela. Hori ikusita, argi nuen testura musikalak egin nahi nirela. Sor nezakeen testura bat egon daitekeena biluzik, edo testura batzuk sortu eta bata bestearen gainean ipini. Horrela, testura horiek guztiek sortzen dute testura berri bat. Pinturan bezalakoa da.

Notak eta aukeratzeko, banekien Chillidak asko miresten zuela Bach, eta Bachek, bere izena, letraz letra idazten zuen. Hau da, musikan: si bemol, la, do eta si naturala. Bachek baliabide hori asko erabiltzen zuen, eta hori berari hartu diot.

Chillidari omenaldia, Basterretxeari orain... Zerbait bada hor.

Eskulturatik badauka zerbait. Eta uste dut euskaldunok dugula lotura, oro har, eskulturarekin. Zera ikusten dut: daukagu espazioa eta denbora, edozer gauzarekin bezala mundu honetan. Baina musikaren kasuan: zer gara kontzienteko, espazioaz edo denboraz?

Denboraz?

Hori da. Hamar minutu irauten badi-tu pieza batek, hamar minutu dira. Eskulturari, aldiz, zer gertatzen da kalean dagoen eskultura batekin? Zenbatekoa da bere denbora? Urteak eta urteak ematen ditu hor, geldirik. Aldiz, espazioarekin etengabe dago interakzioan.

Musikak ezin diezadake eman espazioaren kontzientzia hori, eta eskulturak bai. Zergatik ez hasi hori irakurtzen? Jorge Oteizaren liburu guztiak irakurri nituen, Chillidaren poesiak, Basterretxeak ez dauzka horrenbeste; eta Basterretxea ez denez horren ezaguna, nahi nuen niretik omenaldi bat egin.

Eta espazioari nola eman garrantzia musikan?

Orkestra batek bere espazioa dauka: flautak daude alde batean, pianoa bestean, biolinak han... Horiek espazioan ondo banatu behar dira, dagokien lekuan eta behar adina indar emanda.

Oteiza ere baduzu erreferentetzat.

Oteizak esaten zuen, eta azken boladan badut sentsazioa batzuetan: "Nik hau egin dut, eta jada ez dut nire kontsideratzen". Hau da, botatzen ditut nire dudak hona [pentagrama seinalatu du], lotzen ditut, eta hil egiten zait. Nire buruari esaten diot gero: "Serio, Jon, hau egin duzu?". Bi aste itsututa pasatu, "egiten ari naizen hau oso-oso *guapoa* da", paperera bota, eta gero ja nazkatu. Eta horregatik idazten dut berriz. Obra bakoitza, hortaz, aurrekoaren ondorengoa da. Oteizak hori zioen artearen bizialdi prozesuaren inguruan.

Chillida, Basterretxea eta Oteiza. Eta Joxean Artze ere bai, bere obrak inspiratu baitzintuen zure beste lan baterako: *HERREN* deitu zenuen. Ez dira edonor.

Badakizu zer gertatzen den? Gaur egun ez dudala topatzen horrelakorik. Tristeia egiten zait. Agian Artze ez zen lehen hain ezaguna, eta behin jende hori hiltzen denean egiten da hain ezagun... Ez dakit. Horiek izan dira puskatzai-leak niretzat.

Musika aldetik erreferenterik baduzu?

Europar dabiltzanak, oro har. Kaija Saariaho konpositore finlandiarra, eta Helmut Lachenmann alemana, esaterako. Bietara daukat begirada, hemengora eta kanpokora. Ni hemengoa naiz eta egin nahi dut hemendik; baina gero, nola ez, kanpotik ikasi behar da. Biak uztartzea interesgarria da.

Eta bestelako musikan, erreferenterik Euskal Herriko musikagintzan?

Egia esan, musika gehiegi-gehiegi ere ez dut entzuten. Entzutera jartzen bainaiz, kontzienteki, ikasteko da. Eta gero, kontzienteki ere bai, disfrutatzeko. Eta berriz bueltatzen gara aurrekora: Mikel Laboa entzuten dut asko. Eta Xabier Lete

ere bai. Baina batez ere Laboa. Tristeia egiten zait, baina iruditzen zait, eta lagunak ditut tartean, baina pop mailan adibidez, dena erabat neutroa ikusten dut. Inor ez da arriskatzten urratsak ematera. Ez dit sortzen ezer. Nahiko nuke, baina ez zait gertatzen.

Lehen komentatzen zenuenari lotuta: Laboa izan daiteke abstraktuaren eta figuratiboaren artean dabilena.

Baietz esango nuke, eta horregatik gus-tatzen zait. Letra batzuk zuzenagoak ditu, eta beste batzuk ez. Laboak daukan mundu magiko eta sonoritate hori izugarria da.

[Leihoak irekita daude, eta kanpotik, orain, lehen baino nabarmenago,

saxoa entzuten da, norbait entseguan ari den seinale]. Orkestrara itzulita. Konpositoreok zer harreman daukazue interpreteekin? Beno...

Zeren, zuk paperean idatzitakoa orkestrari ematen diozu eta, gutxi gorabehera, zu zara agintzen duena. "Aizue, jo ezazue idatzi dudan hau".

Ez da nire kasua, zeren kontsideratzen dut harreman ona eta gertukoa dudala interpreteekin, baina normalean harremana konplikatu izaten da. Interpreteek, askotan, obligazioz bezala jotzen dute zure musika. Eta hein batean horrela izan behar du, normala da. Baina uste dut konpositoreon lana dela orkestrarengana gerturatzea. Konpositore batzuek ez dute horrela pentsatzen. Badago zera hori: "Oso intelektuala naiz, ez duzue nire musika eta artea ulertzen, eta jo ezazue idatzi dudan obra puska hau, eta ondo". Garrantzitsua iruditzen zait interpreteekin gertuko harremana izatea,



"Entzun, epaitu gabe.

Uste dut hori dela
musika garaikidea egiten
dugunon lanetako bat;
ez dut beti esplikaziorik
behar"

buruan daukazuna esplikatzeari, eta horretarako behar den sinpleen azaltzea. Konpositore batzuk, baina, azaltzen dira azken entsegu egunera eta listo. Baina berekoi ipinita, guk daukagu galtzeko dena: interpreteak ez badu interesik nire lana ondo jotzeko, galtzen ni iriteten naiz.

Konpositore intelektual figura klasiko eta historiko hori existitzen da, hortaz. Erromantizatuta dagoela esan didazu lehen. Konpositore ikasle moduan, pisatzen du horrek?

Pisatzen du, eta nahastu ere egiten gaitu. Irakasleak idealizatzen ditugu, oso-oso onak direlako, eta hasten zara ezagutzen eta, gaizki esanda, bera ere garagardoak hartzera doa, mundu guztia bezala. Idealizatuta eta erromantizatuta daukagu. Baina historiak berak erromantizatzen du.

Diziiplina honek badauka historia luzea.

Bai, ez da dudarik, horrek asko pisatzen du. Baina Beethoven-eta hauek interpreteak ere baziren konpositore izateaz aparte. Hau da, idatzi eta jo egiten zuten. Hori orain ez da gertatzen. Interpreteen eta konpositoreen harremana joan da aldatzen, aldentzen, bakoitza berean espezializatzen. Eta oraingo pianista batek Beethovenek baino mila aldiz hobeto joko du. Konposatu, agian, inork ez [barrere egun du].

Musika klasikoak beti lotu izan da elitismoarekin...

Jakina baietz. Mozartek idazten zuen erregeentzat, esaterako. Hortik hasten da. Eta gaur egun badirudi orkestra bat entzutera trajearekin joan behar duzula. Baina gero, errealki, ez da horrela. Elitizazio hori apurtu egiten da orkestra bat entzutera joaten zarenean. Eta, gainera, gaztea izanda, 10 euroren truke sekulako piezak entzun ditzakezu eta etxera joan lasai-lasai.



Niri nagia eragiten dit elitismo horrek, baina batik bat konpositoreen artean dagoenak. Badirudi, gainera, ezin duzula hori kritikatu, eta hori suntsitzeko nahia izatekotan, izen bat eduki behar duzula. Baina lehenik uztaitik pasa behar duzu.

Musika klasikoak ez dago jendartearen oso presente, ezta?

Musika bakoitzak bere espazioak eta lekuak ditu. Musika klasikoak, nahiz eta irratian batean entzun, bere espazioa ez da irratia. Eta alderantziz, reggaetoiarena ez da Kursaal. Hori ulertu egin behar da. Baina horrez aparte, kristoren ezjakintasuna dago musika klasikoarekiko. Ez da erakusten benetan zer den. Ez dira betiko doinu klasikoak bakarrik; musika klasikoak gerturatu daiteke heavy metal-era beste mila gauza baino gehiago.

Alegia, urteberri eguneko Vienako kontzertutik harago badela mundurik. Elitismoaren goren, adibiderik ezagunena, Vienako kontzertu hori da, ez?

Puf. Hori ez dut inola ere ikusi nahi. Gainera, Vienako Orkestra izan zen azkena emakumeak sartzen; eta gaur egun ere, ikusten dituzu emakumeak atze-atzean, kamerekin ez dituztela enfokatzeko.

Publiko orokorarentzat, urteko alimentua da.

Eta kupoa betetzen dute, dena valsez eta polkaz beteta. Horra joan eta txalo-txalo egin, Radetzky-ren martxarekin.

Zuk trajeriak ez diozu eskatuko publikoari... Euskadiko Gazte Orkestrak, uztail honetan, zure obra

joko du. Ohorea izango da zuretzat.

Ohorea, bai, zeren nik EIO Euskadiko Ikasle Orkestrarekin jo nuenean Shostakovich-en 5. sinfonia jo genuen, eta orain Shostakovich-en hori joko da nirearekin batera, eta Coplandekin. Eta horrez aparte, kointzidituko dut lagun pilo batekin, interpreteak direnak. Lagunarteko esperientzia izango da, hortaz. Eta lagunak, lagun ditudanez, badakit inplikaturiko direla ondo jotzera. ●



Koop
mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen
mekanizazioan espezialistak



Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Irrintzi bat ezpataren aurrean

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE EKIDA

50 urte dira Gabriel Aresti euskal idazle marxista hil zela, eta Ekida arte ekimenak ekarpenak hartu eta etorkizunera begira jarrita oroitu du. “Ezin dugu bere poesia iraganetik hartu, soilik etorkizunetik”, diote.

Ezer gutxi esan dezake hildako batek etorkizunaz, baina ereindako haziak derrigor ematen dute lorerik gerora. Ekida arte ekimen sozialistak eta Arestik badute zer edo zer komunean: ideia marxistak eta arte politiko eta iraultzailearen aldeko grina.

Euskal idazle ezagunenetakoa bat dugu aipaturikoa, euskal poeta prestigioduna eta euskal literaturaren pilareetako bat. Idazle berritzailea eta kritikoa, egun harrotasunez oroitua. Garai haietan ez zuten ikuspegi bera, ordea. Traidore eta espainolizatza hartzen zuten bere ideia eta jardun politikoagatik, nortzuk eta Letek eta Txillardegik berak. Ideia hori oso presente dago obran: “Poesia herriarentzat, langile eta baserritarrentzat, eta ez burgesiaren-

tzat”, dio Arestik obra honetan. “Euskara irakastea mundu berri baterako izan da dila eta ez dagoena soportatzeko”. Bote-redunek ere, apaiz, nagusi, editorial eta interesdunek ez zuten begi onez ikusten, eta hainbat poema zentsuratu zizkiotela kontatzen dute; Franco edo eliza kritikatzegatik eta egiak esateagatik. Hala nola garaiko kezak eta gertaerak modu gordin zein poetikoan jasotzen ditu ikusleak: lan heriotzak, abortua eta abortuagatik heriotzak, grebak eta manifestazioak, Bilboko Portuko lan gogorak, euskara klan-destinitatean, manifestazioak, errepresioa, zentsura, boikota... Eta maitasuna, laguntasuna, amorrua eta grina ere bai.

Hori guztia kontatzeko hainbat pertsonaia gorpuzten dituzte. Aresti bera hiru aktorek ordezkutzen dute, haren bizitzako etapa banatan bakoitzak. Horrez gain, Bilboko Portuko lankideak, nagusiak, lagunak, senideak, maitalea, apaizak, polizia, herritarrak, grebalaria eta Lurdes Iriondo bera ikus ditzakegu oholtzan. Zalan-

BIGARRENEZ ARESTI ETORKIZUNAREN AURREAN

NORK: Ekida Arte Ekimena.

NOIZ: ekainaren 20an.

NON: Azkoitiko Baztartxo antzokian.

tzarik gabe, Francoren garaira garamatza orduantxe oraindik jaio ez ginenak ere. Jantziek, hizkerak eta sortzen duten giroak ezinbestean kokatzen gaituzte han.

Oholtzan lau aktore, eremu desberdinak irudikatzeko mugitzen diren bi aldarmio eta giroa, soinuak eta abestiak zuzenean sortzen ari diren bederatzi musikari. Oskorriren *Forjarien kanta*, *Adela* eta *Oskorri* abestiak jotzen dituzte zuzenean. *Eusko gudariak* zeharkako txirulaz, Lurdes Iriondoren *Gaua* gitarra eta ahotsaz eta harrigarria den antzekotasun batekin. Une eta irudi hunkigarri, sakon zein magikoak jasoko ditu ikusleak. Idazlearen poemak entzun ahalko ditu errezitaldi zein zeharkako elkarrizketetan.

Hildako batek ezer gutxi esan dezake etorkizunaz, hilek ez baitute balio, biziak bai. Hala, euskaldunen lurrean oskorria zabaltzeko irrintziak borobilduko du obra, *Oskorri* kantak, hain zuzen. “Borrokatu izan den etorkizunak nonbait irauten al du? Ezinezkoa da ezerezean geratzea”. ●



LIBURUA

Hitzak mailu



ELKAR

SIMULAKRO BAT

LEIRE UGADI

ELKAR, 2025

MADDI GALDOS ARETA

Hitzak hautsi egin dezake, kolpatu, arrakalatu eta apurtu. *Simulakro bat* (Elkar, 2025) izendatu du Leire Ugadik (Urduña, 1996) simulakro hutsetik harago jotzeko gonbita izan asmo duen olerki bilduma. Poesian aski ibilia denak, forjari lanetan, 62 poema bildu eta bere ibilbideko lehen liburua argitaratu du berriki. Arestiri egindako aitortzak argi adierazten duenez mailu izatera datoz urduñarraren hitzok: mailu, bizi ditugun muturreko egoerak pitzatzeko.


Bost atal ditu liburua: *Eszenatokia*, *Jarraibideak*, *Distrakzioak*, *Alarma* eta *Forja*. Oro har, ezinegona eta gatazka dira orriotan gailentzen, eta askotariko gaiak dira hizpide. Lehen eta azken ataletan aurreratutako asmoari argiki erantzuten dioten poemak bildu ditu Ugadik,

eta esplotazioa, ezarritako otzantasuna eta sistemari darion biolentziaren ingurukoak kausi ditzakegu han-hemenka. Halaber, atentzioa ematen du nitasunaren eta gutasunaren arteko tenkak, batzuetan bereizi nahiak eta bestetzetan elkartu ezinak ezaugarritzen duena. *Egia esan* eta *Igandea* poemetako hartzaile liriko dei genezakeenaren hautaketa aipatutakoaren adibide da, baita *Pertenentzia* poema bera ere.

Beste hiru ataletan maitasuna eta harremanak dira nagusi, besteekikoa nahiz norberarekikoa. Preseski, maitatzeko ezintasuna, isolamendua eta gisakoak dira hizpide, baita harremanen ezaugarri nagusi bilakatzen ari den ziurgabetasunak sorturiko frustrazioa ere: “Horrela ez da / benetan besarkatzen / horrela ez / baina bihar berriz saia zaitez”.

Lehen irakurraldian aipatutako ildotik urrun gaitzaketen ustea sor badakiguke ere, funtsean harremanak ere gudu-zelai direla aldarrikatzen dute poemok, maitatzeko eta harremanak izateko erak ere fermuki zedarrituta direla azpimarratzen baita.

Maite gaitut poemak berak aitortzen duen legez, “hitzek emandako legeen gainetik” idatzi du Ugadik bilduma: hizkuntzaren mugak xaxatu eta esanezin direnak adierazten ditu hala. Hotsen errepikapenak eta antzeko hitz eta egituren kateamenduak ezaugarritzen du urduñarraren idazkera. Hots, hizkuntza behartzen ongi daki poetak, baina baita hitzak maiz behartu egiten gaituela ere. Azken horren kontra eta egia alderantziz forjatzen ditu hitzak, finean eta, esan bezala, mailu izan daitezten. ●



MUSIKA

Auzo-lotsaren printzesa: gora Azuleja!



RTVE



C.R.I.N.G.E

AZULEJA

LE ROYALE, 2024

XALBA RAMIREZ

Bai, ia beti euskal taldeak dira lerro hauetan intereseko. Guretzat, eta zuentzat. Baina pixka bat epifania moduan, Amabirjina ikusi duenak nola, hala daukat aurkikuntza bat partekatzeko.

Balboako Observatorio jaialdian (Leon, Espainiako Estatuak) ikusi genuen Azuleja. Urrutitik, neska bat ezkontzako soineko handi eta itsusi batekin autotune zatar batekin abesten. Bere alboan, galtza moztetan, zigarroa ahotik kentzen ez duen gitarra jolea, aulki batean eserita. Soinua lofiaren mailara iristen ez den arren, bada zerbait txundigarria: kantua ederra da eta abeslari eta gitarra jolea bikainak.

Ihes egiteko imintzioa egin dugu, baina Azuleja izan da ihes egin duena. Eszenatokitik korrika egin du alde, Roy Borland bakarrik utzita, hiru minutu luzeren os-

tean, sportez jantzita, bi dantzarekin, eta dantza erabat erredikulu batekin itzultzeko. Aho bete hortz, gu. Jakin gabe ea geratu edo hanka egin. Berriz joan da Azuleja, eta berriro buelta. Oraingoan, printzesaz jantzita: ponpoi batzuekin eta cheerleader batzuk nola, publiko osoa letreiatzen: C.R.I.N.G.E.!

Etexera iritsi, eta erabat flipatuta, diskoa entzutera. Hajar Kaddouri Boudib da Azuleja, 2003an Rabaten jaioa, baina txikitatik Madrilen hezia. Idazle izateko ametsa zuen, eta ez musikari, baina kasualitateen ondorioz, Erdi Aroari buruz egin nahi zuen idatzia –Azuleja pertsonaia bertarako sortua da– disko berezi (oso berezi) batean bihurtu du Kaddourik.

Pop komertzialaren arauak bihurritzen dituen printzesa hiperestimulatu baten historia, maitasuna eta desira ospatzen

dituen bitartean. "Kontzeptua bagenuen, *cringe*-aren erregina, eta ni gauza barrregarriak egiten nahita. Neure buruari esan nion: Auzo-lotsa ematen badut... are gehiago emango dut!".

Elkarrizketa batean azaltzen zuenez, Carly Rae Jepsen eta Katy Perryren estiloko kantak egitea zen bere ideia, baina horiek alde "*mega cringe delirante*" batera eramanez. Harrigarria da, nola kantu ederak ia umorezko kantu bihurtu dituen, finean, kritika soziala egiteko. Gutxi dira musikaren markoa aldatzeko gai diren artistak. Ikuskizunarekin ezkutatzen dute batzuek, diskurtso eta teoriarekin, besteek. Azulejaren proposamena beste bat da: antzerkiarekin eraldatu du bere musika. Eta horra hor bere sekretua: bizitza antzerki bat dela, eta nork bere papera aukeratzeko borrokan bizi garela. ●

Ezkerra 'woke' eta eskuina punk?

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Eskuina da punk berria”, bota zuen Santiago Abascalek iazko abenduan podcast argentinar batean eta, orduz geroztik, eslogana errepikatu eta errepikatu ari dira eskuadrisimo digitaleko kliquen jornalariak. Inor ez da harrituko ondorengo datuarekin, baina eman egingo dut hala ere: esaldia ez da alkandora estuegiz eguzkiari so egiten dion Amurrioko ultrarena. Horretan ere ez da originala. Berehala aurkituko duzu formula bera Roseanne Barr komedianta eta aktore estatubatuararen ahotan, urtebete lehenago –bai, ETB1ek emititzen zuen *Roseanne* telesaileko protagonista: trumpatuta dabil, antza–.

Dena den, destripa dezagun pixka bat kontu hau, taxiei deika aritzen ez den jendeak ere erdi-sinetsi baitu honezkero: gaurko eskuin hiperbentilatuari gando-rra ikusi nahi dioten askok esaten dute ezkerra *woke* bilakatu dela, politikoki polita, dena errespetu, zaintza, aniztasun eta koloretxo. Eta horren erruz, korroskada publikoak botatzeko espazioa libre geratu dela faxismoarentzat.

Punk errealki existentia ezagutu egin behar da, ordea. Giro horretan zertxobait ibili den edozeinek –ez orain bakarrik, duela hamar, hogeitau urte gehiago–, badaki espazio punkien agendan ez dela arraroa otordu beganoak edo anti-espezismoa agertzea; jarrerak matxifaxisten arbuioa leku “normaletan” baino agerikoagoa dela; labur esateko, *woke* tramankulua AEBetatik inportatu baino puska lehenago izan direla punkiak batzbestekoa baino *woke*-ago.

Batzuentzat, zera bihurtu da problema, nik uste: lehen

hankabeltz zorritsuen lokal okupatuetara mugatuta zegoena orain zentro komertzialeraino iritsi zaiela, forma aski edulkoratuetan bada ere. Eta, besterik gabe behazuna jariatzen aritzea ez denez itxurosoa ordenako jendearentzat, asuntuari justifikazio kontrakulturalen bat bilatu behar izan diotela.

Errebeldiaren ideia eskuin muturrerantz lerratzea, dena den, kontuan hartzeko joera da. Abisuak aspalditik dauzkagu. Virginie Despentesen *Vernon Subutex* (2015-2017) trilogiako pasarte bat da ondorengo, zeinean ama batek izandako dezepzioa kontatzen den: “Bere semea txikia zenean, ezerk ez zuen kontsolatzen haren musuek bezain azkar. (...) Amak xamurtasunez irensten zuen gorputz txiki hura. Haren oin nimitxoak, Dragoi Bola Zren edredoiak. Gauzak konplikatu egin ziren hamasei urte bete zituenerako. Inoiz ez zuen hura maitatzeari utzi, baina akabatu ahalko zuen, bateko futbola eta besteko edozein unetan esaten zituen

lerdokeria matxistak eta fatxak. Zauritua eta traizionatua sentitu zen, beti moldatu izan baitziren ondo. Hiru urteko tentsioa eta gero pasa zen. Bere semea eskuinekoa da. Hasieran pentsatu zuen bera izorratzeko bakarrik egiten zuela, baina azkenerako onartu zuen: gazte inteligenteak dagoeneko ez dira sistematikoki ezkerrekoak”.

Pierre Bourdieu 1981ean seinalatu-tako zerbaitek argi dezake, zertxobait, transformazio hori. Eredu politikoan ezkerra eta eskuina bereizteko, bakoi-tzak hartzen dituen posizioei begiratzen diegu; baina posizio horiek garaiaren arabera erabat aldatzen dira: bi mundu gerren arteko Frantzia, ezkerrek esperantza handia zuen zientzian eta aurrerapenean; eskuinak aldiz, naturaren gurtza eta irrazionalismoa zituen banderatzat. 1980ko hamarkadaren amaieran aldiz, eskuin frantsesa zen arrazionalista-teknokrata Bourdieuren arabera; 68ko maiatzaren osteko ezker-rra, aldiz, net libidinala.

Beharbada eskema hasierako posizioetara itzuli da kapitalismoaren fase distopiko honetan: ezkerrek argudio-multzo oso sofistikatuak eskaintzen ditu; “sartu hitz potolo horiek ipurtzuloan eta goazen *after*-era”, erantzuten dio parranda neoliberalaren ondorengo faxismo berriak. Ez da hainbeste *woke* ala punk. Garaiz erretiratzen den enpolloia izan, ala Mari Karmen seme kabroia: hori da une honetan askoren dilema ideologikoa. ●



Kamiseta **17 €**

Erosten duzun produktu bakoitzarekin,
ekarpen ekonomikoa egiten diozu
Mbolo Moye Doole elkarteari.
Batez ere Senegaldik etorritako
migratzailez osatutako Bilboko
kale-saltzaileen elkarte da Mbolo.

 **ARGIA**

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**

Bidalketa gastuak **5€**.

Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.

Poltsa **14 €**





Abentura erraldoia

Hegan

Ipuina **12€**

azoka.argia.eus

Gorka Bereziartua eta Adur

Bi ipuinak
batera
22€

Eskaintza berezia **uztailaren 13ra** arte:

→ ARGIAkoa eginez gero liburua opari

argia.eus/eginargiakoa

→ ARGIAko kidea bazara **10€-an**

azoka@argia.eus (+34) 943 37 15 45

12€

